

**ESPAINIAKO  
KONSTITUZIOAREN  
MENDEKO HIZKUNTZA-  
LEGE EZBERDINEN  
ARTEAN EAE-KOA ETA  
KATALUNIAKOA  
AZTERGAI**

Hiznet 2018-2019

Zuriñe Gojenola Goitia  
2019ko uztaila



## ESKER ONAK

Eskerrik asko Paul, ezezagun nuen ozeano zabalean nahi nuen portura gidatu nauzulako. Eskerrik asko Leire, lana txukundu didazulako. Eskerrik asko zuri ere Urko, erdibidean amore ematen utzi ez didazulako. Eskerrik asko Beñat eta Kattalin nire ausentzia gustatu ez arren, pazientziaz itxaron nauzuelako. Eta nola ez, zuri ama, behar izan zaitudan guztian, beti bezala, hor egon zarelako.

Euskal Herria euskaldundu nahi dugun guztiontzat.

## Aurkibidea

<b>LABURPENA</b> .....	<b>2</b>
<b>1. SARRERA</b> .....	<b>3</b>
<b>2. HIZKUNTZA-POLITIKA</b> .....	<b>5</b>
<b>2.1. ZERTARAKO</b> .....	<b>5</b>
<b>2.2. HIZKUNTZA-POLITIKA EREDUAK EUROPAN</b> .....	<b>8</b>
2.2.1. EUROPAKO KONTSEILUA .....	9
2.2.2. EUROPAKO BATASUNA .....	11
2.2.3. GIZARTE ERAGILEAK .....	12
<b>2.3. HIZKUNTZAK EUROPAKO ESTATUEN BARNE LEGEDIETAN</b> .....	<b>15</b>
<b>3. HIZKUNTZA-POLITIKA ESPAINIAKO ESTATUAN</b> .....	<b>17</b>
<b>3.1. ESPAINIAKO ESTATUKO HIZKUNTZA-POLITIKAREN EZAUGARRI NAGUSIAK</b> .....	<b>17</b>
<b>3.2. GUTXIENGOEN HIZKUNTZEN ALDEKO HIZKUNTZA-POLITIKEN AZTERKETA KONPARATUA</b> .....	<b>22</b>
3.2.1. HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK BEREZKO HIZKUNTZADUN AUTONOMIA-ERKIDEGOETAN .....	23
3.2.2. ESPAINIAKO ESTATUKO BEREZKO HIZKUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN LEGEAK .....	26
<b>4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ETA KATALUNIAKO HIZKUNTZA-ARAUDIA</b> ....	<b>49</b>
<b>4.1. EAEKO ETA KATALUNIAKO ESTATUTUETAN HIZKUNTZARI BURUZKO ARAUDIA</b> .....	<b>49</b>
4.1.1. BI ESTATUTUETAN LANTZEN DIREN ARAU PAREKAGARRIAK.....	50
4.1.2. SOILIK KATALUNIAKO ESTATUTUAK LANTZEN DITUEN PARAMETROAK .....	53
<b>4.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ETA KATALUNIAKO NORMALIZAZIO LEGEEN AZTERKETA KONPARATUA</b>	
<b>59</b>	
4.2.1. BI LEGEEN EDUKI-ESKEMA ETA EDUKI-SINTESIA.....	59
4.2.2. BI LEGEEN ARTEKO ALDERAKETA.....	65
<b>5. ONDORIOAK</b> .....	<b>94</b>
<b>6. BIBLIOGRAFIA</b> .....	<b>98</b>

## **LABURPENA**

Lehen blokean, hizkuntza-politika zer den azaldu ostean European izan diren eta oraindik ere badiren hizkuntza-politikak aipatzen dira. Horretarako hiru esparru zehatz aztertzen dira: Europako Kontseilua, Europako Batasuna eta Gizarte Eragileei dagokiena –azken horretan Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala eta Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa jasotzen dira–. Ostean, Europako Estaturen barne legerietan hizkuntzek duten tratamendua aztertzeraz egiten da jauzi.

Bigarren blokean Espainiako Estatuko hizkuntza-politikan sakontzen da. Bere ezaugarri nagusiak aztertu ondoren, Gutxiengoen hizkuntzen aldeko hizkuntza-politiken azterketa konparatua egiten da, eta horretarako, Espainiako Estatuan berezko hizkuntzak arautzen dituzten legeak alderatzen dira.

Hirugarren blokean, ikerlanaren xede nagusira hurbiltze aldera, EAEko eta Kataluniako Estatutuak eta Normalizazio legeak aztertu eta konparatzen dira. EAEko eta Kataluniako legeon artean parekotasunak dituzten artikulua sailkatu eta haien arteko diferentziak azpimarratzea da xedea. Bataren eta bestearen erraietan arakatu, eta hizkuntzon egoera soziolinguistiko ezberdinen muinera hurbiltzeko saiakera da lan honetan egin nahi dena.

Azkenik, lan osotik ateratako ondorioak azaltzen dira. Alabaina, batez ere EAEko eta kataluniako arauen arteko erkatzetik ateratako ondorioak dira lan honen helburua. Hain zuzen, Kataluniako hizkuntza-legeritik euskararentzat ikasgai izan daitezkeenak atera nahi dira, inbidiaz begiratzen diogu Katalan hizkuntzaren egoera soziolinguistikora hurbiltzeko euskararentzat lagungarri izan daitezkeen ondorioak aterako ditugulakoan.

## 1. SARRERA

Elkarrengandik urrun eta aldi berean ez hain urrun dauden bi herri dira Euskal Herria eta Katalunia. Bakoitzak bere izate propioa du; bere hizkuntza; kultura eta tradizio propioak ditu. Alabaina, badute elkarrekin partekatzen duten ardatz garrantzitsu bat, eta ez nolana hiko, gainera: Hori da Espainiako Estatuak.

Euskal Herriak eta Kataluniak Espainiako Estatuko kide izatea partekatzen dute, bai. Euskal Herriaren zati handi bat eta Kataluniaren beste zati handi bat Espainiako Estatuaren mendean daude. Estatu Espainoleko autonomia-erkidego forman antolatuta daude, gaur gaurkoz, Euskal Herriaren eta Kataluniaren zati handi bana. Ikerlan honen gaia ez bada ere, ezin aipatu gabe utzi bi herriotan Espainiako Estatuarekiko mendekotasuna gatazka politiko amaigabearen iturburu dela.

Ikerlan honen gaia ez dela esan dudan arren, nahitaez aipatu beharrekoa da. Izan ere, Espainiarekiko mendekotasunak eragin zuzena izan du bi herrion hizkuntzen esparruan, eta hori bai da eskuartearen duzun lanean aztertu beharreko gaia.

Esan bezala, Euskal Herriak eta Kataluniak berezko hizkuntzak dituzte. Berezko hizkuntza horiek –euskara, katalana eta aranera, hurrenez hurren– ez dira Espainiako Estatuan berezkoa eta ofiziala den gaztelera hizkuntza. Ondorioz, Euskal Herriak eta Kataluniak gaztelera ez diren berezko hizkuntzak izateak, hainbat gatazka sortu izan ditu eta sortzen ditu gaur egun ere.

Baina Espainiako Estatuan, euskaraz eta katalanaz gain, badira berezko hizkuntza gehiago ere. Horiek guztiek, hizkuntza-politika propioak dituzte. Hori horrela, lan honetan maila ezberdinetako hizkuntza-politikak aztertuko ditugu:

Lehendabizi nazioarte mailara begiratuko dugu hizkuntza politika ezberdinak aztertzeko. Bigarrenik, Estatu Espainolean jarriko dugu arreta Estatu mailako hizkuntza-politikaren ezaugarri orokorretan zentratuta. Ondoren, ordea, berezko

hizkuntzak dituzten autonomia-erkidegoetako araudiak ere begiratuko ditugu. Hirugarrenik, eta bukatzeko, EAEko eta Kataluniako hizkuntza-araudiak aztertuko eta alderatuko ditugu.

Izan ere, horixe baita lan honen helburua. Hain zuzen, EAEko eta Kataluniako hizkuntza-eraketak alderatu nahi ditugu. Horretarako, bi autonomia-erkidegootako Estatutuak eta Normalizazio Linguistikoko legeak izango ditugu ikergai.

Abiapuntuko hipotesia da lege goren beraren pean, alegia, 1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua aginpean, Kataluniak hizkuntza-politika aurreratuagoa eta eraginkorragoa garatu duela EAEk baino. Hipotesia hori izanda, lan honen helburua zera da: Kataluniako hizkuntza-politikatik ikasgaiak ateratzea EAEko hizkuntza-politika eraginkortzeko.

## 2. HIZKUNTZA-POLITIKA

### 2.1. Zertarako

“Erakunde publikoek hizkuntzen erabilera antolatzeko eta arautzeko egiten dituzten esku-hartzeen multzoa da hizkuntza-politika” (SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA 2010). Modu kontzientean hartutako erabakiek osatzen dute hizkuntza-politika, eta erabakion bidez hizkuntzen eta jendartearen arteko harremanean eragitea izaten da xede.

Norbanakoaren hizkuntza-hautua pertsonala da, baina hautu hori testuinguru sozial batean egiten da, eta testuinguru sozial horrek erabat baldintzatzen du hizkuntza-hautua. Baldintzapen sozial horren atzean hizkuntza-politiken eragin zuzena dago: Arrazoiak, helburuak eta erabakiak daude. Eta hizkuntzarekiko zehaztutako helburu edo erabakion arabera, legeak eta arauak ezartzen dira; hizkuntza plangintza bat zehaztu eta gauzatzen da –denbora tasatuan lortu beharreko helburuen araberako bitartekoak jartzen dira-.

Alabaina, inolako erabakirik ez hartzea, araurik ez ezartzea eta plangintzarik ez egitea ere, hizkuntza-politika izan daiteke. Eta izan ere, hala izaten da askotan, “hiztunen esku” utzita hizkuntzaren etorkizuna. Beraz, hizkuntza-politika esplizituak eta inplizituak daudela esan behar da. Esplizituetan helburuen araberako (indarberritzeko, eremu berrietara zabaltzeko...) plangintza egon ohi da, inplizituetan, ordea, ez. Kasu bietan erabaki kontzientea dago.

Hizkuntza politika zehazteko eredu desberdinak daude. Eredu elebakarra eta eredu eleaniztuna. Eredu elebakarrari dagokionez, “Nazio-Estatu modernoaren sorrera oso garrantzitsua izan zen hizkuntza-kontuetan; izan ere, homogeneousatzerara jo zuten eta Estatu bakoitzak hizkuntza bakarra behar zuela hasi zen hedatzen



(SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA 2010). Hizkuntza-politika elebakarrak hainbat hizkuntzaren desagerpena elikatu du denboran zehar, eta hizkuntza-politika elebakarraren –erradikalaren- biktima izan da euskara ere mugaren bi aldeetan – Espainiako Estatuaren mendean diktadurapean, frantziar Estatuaren mendean, berriz, “ezer ez egitearen” politika bortitzak zapalduta-. Bestalde, badira eredu eleaniztuna hautatu duten Estatuak ere. Horietan, Estatuan hizkuntza bat baino gehiago egotea onartzen du hizkuntza-politikak. Edonola, hizkuntza-politika elebakarrekoen artean zein eleaniztunen artean abaniko zabala dagoela azpimarratu behar da.

Globalizazio fenomenoak eragiten dituen ondorioak —migrazio fluxuen hazkundera, Estatuaren barneko kulturantzatasunaren gorakada, baloreen uniformizazioa, *lingua franca* batzuen (ingelesaren...) hegemonizazio deliberatua etab.— kezka iturri bihurtu dira Estatu askorentzat, bere Estatu hizkuntza arriskuan ikusi dute eta. Kezka horren adierazgarri da hizkuntzei lotutako araudiak eta legeriak ugaltzen ari direla. Hala ere, gaur-gaurkoz, hizkuntza-zuzenbidea oso berria da, azken hamarkadetan garatu den disziplina metajuridikoa; hankamotza eta sendotasunik gabea dela salatu ohi da. (RUIZ VIEYTEZ, E. 2005). Edonola, merezi du gainbegiratzea, hizkuntza-eskubideek azken hamarkadetan nazioarteko Itun garrantzitsuenetan izan duten trataera.

Nazio Batuen Erakundearen 1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak ez ditu zuzenean hizkuntza-eskubideak jasotzen. Aitzitik, hizkuntzagatiko diskriminazio ezaren printzipioa jasota dauka..

## **2. atala.**

*Gizaki orori dagozkio Deklarazio honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereiziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeherengatik.*

Bigarren artikuluan irakur daitekeenez, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak argi eta garbi esaten du ez dela inor diskriminatua izango bere hizkuntzagatik.

Bestalde, 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Itunaren 27. artikulua azpimarratzen du Estatuak neurriak hartu behar dituztela gutxiengoaren identitatea babesteko, eta beraien hizkuntzaz eta kulturaz gozatzeko eskubideak bermatuak izan ditzaten.

### ***International Covenant on Civil and Political Rights***

#### **Article 27.**

*In those States in which ethnic, religious or linguistic minorities exist, persons belonging to such minorities shall not be denied the right, in community with the other members of their group, to enjoy their own culture, to profess and practise their own religion, or to use their own language.*

Urte bereko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak hizkuntzarekiko bereizkeria baztertu besterik ez du egiten.

### ***International Covenant on Economic, Social and Cultural Rights Article 2.***

*The States Parties to the present Covenant undertake to guarantee that the rights enunciated in the present Covenant will be exercised without discrimination of any kind as to race, colour, sex, language, religion, political or other opinion, national or social origin, property, birth or other status.*

Bestalde, 1992ko Gutxiengo Nazional, Etniko, Erlijioso edo Linguistikoetako partaide diren Pertsonen Eskubideen Deklarazioa espreski gutxiengo linguistikoaren babeserako Nazio Batuen Erakundeak onartutako hitzarmena da. Gutxiengoaren sustapena babesteko Estatuak neurriak hartu behar dituztela azpimarratzen du eta, une oro, dimentsio indibidualari erreparatzen dio. Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Itunaren 27. artikulua gisa sortu zuten. Alabaina, Deklarazio horrek izaera aholkularia du; ez arautzailea (BILBAO, P. 2019) .

**Declaration on the Rights of Persons Belonging to National or Ethnic, Religious and Linguistic Minorities**

Article 1. States shall protect the existence and the national or ethnic, cultural, religious and linguistic identity of minorities within their respective territories and shall encourage conditions for the promotion of that identity.

Article 2. States shall adopt appropriate legislative and other measures to achieve those ends.

1989ko Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmenak ere 2. artikuluan hizkuntzagatiko diskriminazioa baztertzen du. Honela dio:

**Bereizkeriarik ez**

Hitzarmen honetan aipatutako eskubideak haur guztiei aplikatu behar zaizkie inolako bereizketarik egin gabe eta haurren edo gurasoen arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, etnia- edo gizarte-jatorria, iritzia, maila ekonomikoa, ezintasun fisikoak, edo bestelako edozein ezaugarri kontuan izan gabe. Estatuak edozein bereizkeriaren aurrean haurra defendatzeko neurriak hartuko ditu.

Azkenik, UNESCOren 2001eko Kultur Aniztasunari buruzko Deklarazio Unibertsala eta 2007ko Aniztasuna eta Kultura-adierazpideak babesteko eta sustatzeko hitzarmena daude. Baina horiek ere Estatuei hainbat aholku eman arren, ez dute izaera arautzailerik. (BILBAO, P. 2019)

## **2.2. Hizkuntza-politika ereduak European**

Egun munduan 200 Estatu inguru eta 6000 hizkuntzatik gora daudela esaten da — hizkuntzak edo aldaerak zehazki zenbatzerik ez badago ere—. Kontutan izanda, Estatu modernoan ezaugarri nagusietako bat Estatu-hizkuntza bakarra izatea dela, ondorioa garbia da: Munduko hizkuntzen gutxiengoak (%4a baino gutxiagok) soilik dauka Estatus ofiziala.

Europara etorrita —hurbilpen saiakera bat baino ez dela ahaztu gabe— 225 hizkuntza zenbatzen zituen Grimesek 1996an egindako ikerlanean. Munduko hizkuntza guztien artean %3 baino ez.

Horietatik 54 baino ez dira ofizialak; batzuk Estatu mailakoak dira, beste batzuk, ostera, Estaturen barne-eskualdeetakoak.

Europako hizkuntza-zuzenbidea edo hizkuntza-politikak ezagutzeko, bereizi beharra dago Europako kontseilua eta Europar Batasuna.

### **2.2.1. Europako Kontseilua**

1946an sortu zen erakunde hori. 46 Estaturik osatzen dute; Europar Batasuneko Estatu-kide guztiak eta beste batzuk. Europako Kontseiluak, besteren artean “Kulturaniztasunean oinarritutako Europaren identitatearen kontzeptua” sustatzea du helburu. (BILBAO, P. 2019). Helburu horri lotuta, hizkuntzekin zerikusia luketen araudiak edo hitzarmenak aipatuko ditugu:

- 1950eko Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmenak, bere 14. artikuluan dio, Hitzarmenak biltzen dituen askatasun eta eskubide guztiak bermatu behar zaizkiela herritarrei, eta hartara, ez ditu onartzen bereizkeriak hizkuntzarengatik edota gutxiengo nazional bateko kide izateagatik.
- 1992ko Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Itunak hizkuntza-eskubideak babestea baino, kultura babestea du jomuga nagusi. Haatik, eskubide indibidualak eta kolektiboak zuzenean jaso ez arren, erregio edo gutxiengoen hizkuntzak sustatzeko tresna da. Ez du hizkuntzen babes juridikorako ahalmenik, baina Estatuei hizkuntza horiekiko betebeharrak ezartzen dizkie.

Baliteke Estatu batzuek Itun hori baino legeri aurreratua izatea hiztunen eskubideei dagokienez. Edonola, kontua da Estatuetakoa legeria kasu batean ere ezin daitekeela Itun horren aurka joan. Aipatzearren, Itunak Erregio edo gutxiengo hizkuntzen definizioa egiten du:

- i. Estatu bateko lurraldean bertako biztanleek, Estatuko biztanleriaren barruan gutxiengoa izanik, tradizioz hitz egiten dituztenak; eta
- ii. Hizkuntzok ez dira Estatu horretako hizkuntza ofizialak izango; eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen barruan ez dira sartuko Estatuko hizkuntza ofizialaren dialektoak, ez etorkinen hizkuntzak
  - a. “eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza erabiltzen den lurraldea” da Gutun honetan aurreikusitako babes- eta sustapen-neurriak hartzea justifikatzeko besteko hiztun-kopurua duen hizkuntzaren geografia-eremua;
  - b. “lurralderik gabeko hizkuntzak” dira Estatuko gainontzeko biztanleek hitz egiten dituzten hizkuntzak, baina Estatuko lurraldean tradizioz hitz egiten diren arren, bertako geografia-eremu jakin bati lotu ezin dakizkionak;

Definizio horiez gain, konpromiso zehatzak planteatzen ditu ondorengo eremuetarako: Irakaskuntza, justizia, administrazioko agintariak eta zerbitzu publikoak, hedabideak, kultur jarduerak eta ekipamenduak ekonomia- eta gizarte-bizitza eta mugaz haraindiko elkartueak.

Azkenik, Itun hau sinatzeaz gain berrestera behartuta daude konpromisoa hartzen duten Estatuak. Bada, esan Kontseiluko hamabi Estatu direla berretsi ez dutenak, eta horien artean dagoela Frantzia.

1994ko Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen-markoak ez ditu zuzenean gutxiengoaren hizkuntzak aipatzen eta, beraz, Estatuen borondatearen mende geratzen da hizkuntzekiko jarrera. Azpimarratu behar da Hitzarmen markoak Europako Gutunak baino pisu handiagoa duela.

## 2.2.2. Europako Batasuna

Europako hizkuntza-zuzenbideari erreparatzekotan, Batasunaren hazia izan zen Europako Ekonomi Elkartearen sorreratik gaur arteko garapenari so egin behar. Hartara, EEEtik EBrako trantsizioa ardaztu duten sei Itunek –Erromako Ituna, Europako Akta Bakarra, Maastricht-eko Ituna, Amsterdamgo Ituna, Europako Itun Konstituzionala eta Lisboako Ituna, hurrenez hurren- guztiek jaso izan dituzte hizkuntzaren inguruko aipuak. Alabaina, hizkuntza-eskubideei baino, erakundearen hizkuntza irizpideei lotutakoak izan dira.

Ofizialtasunari buruzko aipamenen faltan, Itun horien bertsio ofizialen hizkuntzak izan dira araua markatu dutenak; izan ere, idazketarako erabilitako hizkuntzak erakundearen aldetik aitortza jaso duten hizkuntzak izan dira.

Hala ere, esan behar da aipatu Itunek Europako Kontseiluaren esku utzi izan duela hizkuntza erregimene gaia. Europako Kontseiluak 1958an idatzi zuen araudi bakarra eta bertan EEE osatzen zuten Estatuetakozko hizkuntza ofizialei, ofizialtasun Estatusa aitortu zien. Irizpide horrek bazuen berezitasun bat: Estatu bateko lurralde osoan hizkuntza ofizial bat baino gehiago izatekotan, eta horietakoren bat beste Estaturen batean ere ofiziala bada, bigarren horri, soilik esleituko litzaioke ofizialtasun Estatusa. Haatik, Europako Itun Konstituzionalak berrikuntza bat ekarri zuen irizpide horretara, eta Maltan, ingelesaz gain, maltera ere ofizialtzat aitortu zuen. (BILBAO, P. 2019)

Europako Itun Konstituzionalak I-3. artikuluan eta Lisboako Itunak 3.3 artikuluan zehazten zuten Batasunaren funtzioa dela kultura- eta hizkuntza- aniztasuna errespetatu eta Europaren kultura eta ondarea babestea. Alabaina, ez zuten hizkuntza-aniztasunari buruzko aipamen zehatzik egiten. Hutsune horri erantzuteko hainbat eskaera izan arren -EBLULen eta Eskualdeetako Baztordeen eskutik-, eskaera guztien artean, hizkuntza-aniztasuna errespetatzearen ingurukoa soilik izan zen onartua. Argitu beharra dago, definitzeko dagoela aniztasun hori zertan datzan.

2008an Europako Batasunaren Funtzionamenduari Buruzko Ituna sinatu zen. Bere 167.1 artikulua zehatzagoa izan eta Batasunari bere egitekoen artean eman zion Estatu-kideei barne-aniztasuna sustatzen laguntzeko funtzioa.

Bestalde, Europako Batasunak bideratu izan ditu ekimen batzuk gutxiengoan hizkuntzei begira (EBLUL erakundea, EROMOSAIC, MERCATOR sarea, ADUM proiektua...), alabaina, ondorio nagusia da, Europako Batasunak ez dituela zuzenean hizkuntza-eskubideak arautzen eta Estatuaren gain uzten dituztela hizkuntza-politikak, Estatuaren barne arazoak direlakoan -nahiz horiek sarritan ez babestu gutxiengoan hizkuntzak-.

## **2.2.3. Gizarte eragileak**

### **2.2.3.1. Hizkuntza eskubidearen deklarazio unibertsala**

Deklarazio hori 1996an etorri zen PEN Club eta CIEMEN taldeek bultzatuta. Deklarazio horrek berrikuntza esanguratsuak planteatu zituen ordurarteko Itun eta hitzarmenekin alderatuta. Hizkuntza guztien Berdintasun printzipioa aldarrikatu zuen:

## **5. artikulua**

Deklarazio honen funtsean dago printzipio bat zeinaren arabera hizkuntza komunitate guztien eskubideak berdinak diren, kontuan izan gabe bere kontsiderazio juridiko edo politikoa den hizkuntza ofizialarena, erregionalarena edo minoritarioarena. Hizkuntza erregional edo minoritario bezalako izendapenak ez dira testu honetan erabiltzen zeren eta, kasu batzuetan hizkuntza erregional edo minoritariotzat aitortua izateak eskubide hauek egikaritzea erraz badezakeen ere, horiek eta antzeko izendapenak suegi erabiltzen dira hizkuntza komunitate baten eskubideak murrizteko asmoz.

Horrez gain, eskubideen babeserako subjeto hizkuntza-komunitatea izendatzen du, lehenengoz.

### **1.1. artikulua**

Deklarazio honetan hizkuntza komunitatea aipatzean esan nahi da edozein gizarte, historian zehar lur-eremu zehatz batean –eremu errekonozitua ala ez- finkatua, bere burua herrizat duena eta hizkuntza komun bat garatu duena kideen arteko komunikazio naturalaren eta kultur kohesioaren bidetzat.

Lurralde bateko berezko hizkuntza edo hizkuntza propioa definizioarekin, lurralde horretan historian zehar ezarritako komunitatearen mintzairari egiten zaio erreferentzia.

Deklarazioak, era berean, hizkuntzen mailaketak eta desberdintasunak baztertu eta hizkuntzak muga politiko, administratibo eta ekonomikoetatik kanpo dauden babestu beharreko subjektutzat izendatzen ditu; izan ere, deklarazioaren arabera, hizkuntza orori aitortu behar zaizkio eskubide batzuk. Alabaina, desberdinkeriak saihestu arren, Berezko hizkuntza kontzeptua sortzen du. Alegia, lurralde zehatz batean hizkuntza batek duen bertakotasuna edo historikotasuna adierazten du. Hartara, bigarren maila batean kokatzen ditu hizkuntza-taldeak, zeinak historikotasun txikiagoa duten lurralde horretan.



Azkenik, Deklarazio horrek hizkuntza-eskubide indibidualak eta kolektiboak banaezinak direla azpimarratzen du.

Esan behar da, zoritxarrez, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala hasieran 90 Estatutako 220 lagunek sinatu eta UNESCOn urrats batzuk eman arren, ez dela lortu, gaur gaurkoz, Nazio Batuen Erakundeak bere egitea.

### **2.2.3.2. Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa**

2016ko abenduaren 16an aurkeztu zen Donostiako Kursaelean Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUAK sustatuta.

Egoera gutxituan dauden hizkuntzei bultzada emateko ikuspegi zientifikoa, akademikoa eta soziala duen tresna hori sortu zuten hainbat taldek elkarlanean.

Protokoloa eratu zuen batzorde zientifikoak Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak jasotzen dituen eremuak aztertu –Printzipioak, Administrazio Publikoa, Hezkuntza, Sozioekonomia, Onomastika, Hedabideak eta Teknologia berriak eta Kultura–, horietan aitortzen diren eskubideak identifikatu eta eskubideok betetzeko neurriak zein berauen betetze-maila ebaluatzeko adierazleak planteatu zituzten.

Hogeita hamar hizkuntza baino gehiagoko ehunetik gora eragilek egin zituzten ekarpenak protokoloaren eraketa prozesuan. Behin ekarpenetako neurriak adostuta Talde Antolatzaileak (Protokoloaren prozesua bideratu zuen bilguneak) dokumentuaren printzipio nagusiak zehaztu zituen. Talde Antolatzailearen parte dira, besteren artean, Linguapax International, ECMI, UNPO, CIEMEN, PEN International eta ELEN eragileak –nazioarte mailan ospe handikoak–. (BILBAO, P. 2019)

## 2.3. Hizkuntzak Europako Estaturen barne legedietan

Baina Estaturez gaindiko Itunak albo batera utzita, begira diezaiogun hizkuntzen gaiak Estaturen barne-leggedietan izan duen garapenari. Azken hamarkadetan hizkuntzen arategiak garatuz joan dira Estaturetan ere eta, egun, Europan berrogeita zortzitik bederatzi herrialde baino ez dira hizkuntza gaiei araudi konstituzionalean aipamenik egiten ez dienak. Bederatzi horietako erdiek, Zuzenbide Konstituzionaleko beste lege batzuetan arautzen dituzte hizkuntzak (RUIZ VIEYTEZ, E. 2005: 234). Haatik, konstituzioetan jasotzen diren hizkuntza-xedapenak Estatu mailako hizkuntzei lotutakoak izaten dira. Estaturetako barne-eskualdeetako hizkuntzei buruzko xedapenak eskualde zehatz horietako administrazioen legedietan biltzen dira –horixe litzateke, esaterako, euskararen kasua-.

Bestalde, Estaturetako Zuzenbide konstituzionalak alderatuz gero, zaila da hizkuntzen inguruko kategorizazio argi bat ateratzea. Izan ere, kontzeptu, termino eta kategoria ezberdinak darabiltzate Estaturek. Kasu batzuetan termino ezberdinek esanahi oso antzekoa dute –esaterako, Hizkuntza ofizialak eta Hizkuntza nazionalak kasu batzuetan esanahi ia berdina daukate- besteetan, ordea, ez. Ondokoak dira Europako konstituzio ezberdinetan aurki daitezkeen kategoriak: Hizkuntza ofiziala, Estatu-hizkuntza, Hizkuntza nazionala, Errepublikako hizkuntza, Hizkuntza nagusia, Berezko hizkuntza, Hizkuntza parekatua, Etnien arteko harreman hizkuntza eta Bertako populazioaren hizkuntza. (RUIZ VIEYTEZ, E. 2005)

Kategorizazioa hainako anitza da Europan aurki daitezkeen hizkuntza-politika multzoa ere. Alabaina, bost hizkuntza-politika mota nagusi bereiz daitezke:

- Elebakartasuna: Estatu-hizkuntza hartzen dute hizkuntza nazional gisa; multzo honetan daude Portugal eta Frantzia.

- Hizkuntza gutxiengoekiko babesa edo tolerantzia: hizkuntza bakarra onartzen dute hizkuntza nazional gisa, baina beste hizkuntza-komunitate batzuk ere onartzen dituzte eta nolabaiteko babesa eskaintzen diete; talde honetan Britainia Handia (galesarekiko) eta Holanda (frisierarekiko).
- Hizkuntza-autonomia: hizkuntza nazional bakarra dute, baina beste hizkuntzaren bat duten lurraldeek autonomia dute eta hizkuntza koofizialak dituzte; mota honetakoak dira Espainia eta Italiako eskualde batzuk.
- Hizkuntza-federalismoa: Estatuak egitura federala du eta lurralde bakoitzak bere hizkuntza du, nahiz eta hizkuntza guztiak hartu hizkuntza nazionaltzat. Belgika edo Suitza izango lirateke horren adibide.
- Hizkuntza-aniztasun instituzionala: hizkuntza nazionaltzat hizkuntza bi edo gehiago onartzen dituzte eta guztien erabilera bultzatzen dute lurralde osoan; honen adibide da Luxenburgo, eta agian Irlanda eta Finlandia sartu ahal izango lirateke. (SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA 2010)

Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak Europako kultura eta hizkuntzak ondaretzat jotzen ditu eta babestu beharraz ohartarazi, aberastasuna direlako (HABE, 2005).

## 3. HIZKUNTZA-POLITIKA ESPAINIAKO ESTATUAN

### 3.1. Espainiako Estatuko hizkuntza- politikaren ezaugarri nagusiak

Espainiako konstituzioaren 3. artikulua zehazten ditu Espainiako Estatuan garatuko den hizkuntza-politikaren ardatzak. Honela dio:

#### 3. Artikulua

1. Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek dute gaztelania jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea.
2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako Estatutuekin bat etorriz.
3. Espainiako hizkuntza-moten aberastasuna kultur ondarea da eta ondare horrek begirune eta babes berezia izango du.

Beraz, Estatu mailako hizkuntza ofiziala gaztelania da. Herritarrek gaztelania erabiltzeko eskubidea eta ezagutzeko derrigortasuna dute. Bestalde, Estatuko eskualde edo eremu zehatzetakoak lirakeen beste hizkuntzak ere ofizialak dira, baina ofizialtasun hori bere Estatutuaren hedapen eremura mugatzen da. Azkenik, Estatukoak lirakeen hizkuntzak ondareztat jotzen ditu konstituzioak, hortaz, errespetatu eta zaindu egin behar direla azpimarratzen du.

Horrez gain, espainiar konstituzioko 148. artikulua arabera autonomia-erkidegoen eskumenen artean legoke “kulturaren eta ikerketaren sustapena, eta

dagokion kasuetan autonomia-erkidegoko hizkuntzaren irakaskuntza” (HERRERAS, J. C. 2010: 4).

Gaztelania ez beste hizkuntzaren bat berea duten autonomia-erkidegoetan, hizkuntza-xedapenak dituzte jasota Estatutuetan. Estatutu horien artean konbergentzia handia dute oinarrizko bi puntutan: Batetik, “erkidegoko” hizkuntza berezko hizkuntza eta hizkuntza ofizial izendatzen dituzte. Honetan salbuespen bakarra Nafarroa da, hizkuntzaren ofizialtasuna erkidegoko eremu batzuetara mugatua baitu. Bestetik, nabarmentzen dute herritar orok duen eskubidea berezko hizkuntzan jarduteko eta diskriminatua ez izateko darabilen hizkuntzagatik. Haatik, azpimarratu behar da Espainiako konstituzioaren arabera herritar orok ezagutzeko derrigortasuna duen hizkuntza bakarra gaztelera dela; Estatuko hizkuntza ofiziala. (HERRERAS, J. C. 2010: 5)

Hori guztia esanda, Espainiako hizkuntza-politikaren lau printzipio nagusiak ondorengoak lirateke:

### **Hizkuntzen ofizialtasuna:**

Hizkuntza bat bere lurraldean ofizial izendatzen denetik harreman publiko zein pribatu guztietan erabili ahal izango da inolako eragozpenik gabe eta eraginkortasun juridiko osoarekin. Hartara, hizkuntzaren erabilera aktiborako zein pasiborako aukera bermatuta egongo dira. Esan nahi baita, herritarrek edozein kasutan bere hizkuntza ofiziala erabiltzeko aukera izango dute eta erantzuna ere, solaskidea erakunde publiko bat denean, hizkuntza berean izan beharko da. Horrek, botere publikoei administrazio publikoa betebeharren neurrira egokitzeko erantzunkizuna egozten die.

Ofizialtasun Estatusak beste betebeharrak batzuk ere egozten dizkie botere publikoei. Hain zuzen, Derrigorrezko Hizkuntzaren bukaeran herritar orok hizkuntza ofizialen ezagutza ziurtatua izan dezan bermatu behar dute. Konstituzio epaitegiak, hortaz,

konstituzioak berak, azpimarratzen du autonomia-erkidegoetan nola gaztelaren ezagutza hala tokiko berezko hizkuntzarena ziurtatu behar dituela, eta horretara ikastetxeetan behar den intentsitateaz irakatsiak izan beharko direla. Horri erantzen dio, ikastordu murriztegiak izateagatik helburu hori betetzera helduko ez liratekeenek, konstituzioak ezarritako betebeharra hautsiko luketela.

Azkenik, legearen arabera, administrazioak hizkuntza ofizialen bat ez ezagutzea argudiezina litzateke, baldin eta, konstituzioaren aginduari jarraiki, irakaskuntzak hizkuntza ofizial horren ezagutza bermatzen baldin badu. Gaztelaren kasuan beti dago ziurtatua ezagutza, ordea, berezko-hizkuntzen irakaskuntza oraintsu sartu berria denez hezkuntzan, belaunaldi berrien hizkuntza-formazio egokia bermaraziko duten Normalizazio Planak behar dira.

### **Gaztelera ezagutzeko derrigortasuna:**

Alde anitzetatik eztabaida handiak sortu zituen puntu hori. Legeak agindutakoaren arabera, herritar orok gaztelera ezagutu behar du. Haatik, bigarren hizkuntza ofizialen bat duten autonomia-erkidegoetan legeak ez ditu herritarrak behartzen gaztelera erabiltzera, izan ere, legeak bi hizkuntza ofizialen artean hautatzeko aukera bermatuko luke.

Bestalde, Konstituzio Epaitegiak azpimarratzen du Estatuak hizkuntza ofizialez irakaskuntza eraginkorra bermatzeko betebeharrak konstituzionalak duela. Hortik ondorioztatzen da, bi hizkuntza ofizial dituzten autonomia-erkidegoetan Derrigorrezko Hezkuntzak bermatu behar duela herritarrek bi hizkuntza ofizialak ondo ikastea.

### **Lurralde-eremu bateko berezko hizkuntza:**

Autonomia Estatutu batzuetan berezkotasun printzipioa azpimarratzen da erakunde publikoetan berezko hizkuntza ofizialaren erabilera lehenesteko. Horixe

gertatzen da, esaterako, Kataluniako Autonomia Erkidegoan. Honela dio Llei 1/1998, de 7 de gener, de política lingüística:

**2. artikulua:**

*El catalán como lengua propia es la lengua de todas las Instituciones de Cataluña, y en especial de la Administración de la Generalidad, de la Administración local, de las corporaciones públicas, de las empresas y servicios públicos, de los medios de comunicación institucionales, de las enseñanza y de la toponimia.*

Berezkotasun printzipioaren parez pare herritarrak hizkuntza ofiziala aukeratzeko duen eskubidea dago. Beraz, autonomia-erkidego batek erabaki dezake erakunde publikoen barne-hizkuntza edo lan-hizkuntza berezko hizkuntza izatea –baldin eta hezkuntza sistemak bermatzen badu berezko hizkuntzaren ezagutza-, baina baldin eta herritarrak gaztelera hautatzen badu administrazioarekin harremantzeko hizkuntza, administrazioak gazteleraz artatu beharko du..

**Hizkuntza arrazoiengatik bereizkeria eza:**

Espainiako konstituzioak saihestu egin zuen hizkuntzarengatik bereizkeriarik eza propio jasotzea, nahiz eta sinatuak dituen nazioarteko hainbat itunetan jasoa dagoen. Alabaina, gatazka nabarmenak sortzen dira bi hizkuntza ofizial dituzten autonomia-erkidegoetan, izan ere, horietako batzuetan herritarren parte batek baino ez du ezagutzen hizkuntza ofizialetako bat (berezkoa), eta ondorioz, berezko hizkuntzan aritu nahi duten herritarren hainbat eskubide urratu egiten dira. Hartara, hizkuntzarengatik bereizkeria gertatzen da (AGIRREAZKUENAGA, I. 2003).

Aipatutako printzipioek arautzen dute Espainiako hizkuntza politika orokorra, eta gidatzen autonomia-erkidegoetako normalizazio linguistikoko legeak. 1982-98 artean garatu ziren normalizazio linguistikoko legeak. Horiek dira bi hizkuntza ofizial dituzten autonomia-erkidegoetako hizkuntza-politikak ardatzen dituzten araudiak. Lege horien helburu nagusia autonomia-erkidegoko hizkuntza ofiziala

esparru guztietan sustatzea da: administrazioan, hedabideetan, esparru kulturean zein hezkuntzan. (HERRERAS, J. C. 2010) Normalizazio linguistikoko legeek zehazten dute autonomia-erkidego bakoitzeko hizkuntza ofizialek esparru guztietan bete beharreko funtzioak zeintzuk diren.



## **3.2. Gutxiengoaren hizkuntzen aldeko hizkuntza-politiken azterketa konparatua.**

Espainiako Konstituzioaren arabera, hizkuntza-eskubideak izaera arrunteko eskubide publiko subjektiboak dira; ez, ordea, oinarrizko giza eskubideak. Ondorioz, hizkuntza-eskubideek ez dute giza eskubideek duten babes juridikorik, nahiz, ofizialtasun Estatusak botere publikoen aurrean nolabaiteko babes neurriak exijitzeko eskubidea eman. Alabaina, giza eskubideak eta hizkuntza-eskubideak sarritan gurutzatu egiten dira; badira hainbat giza eskubide hizkuntzaren gaia aipatzen dutenak edo zuzenean hizkuntza-eskubideekin lotzen direnak. Ondorengoak, esaterako:

Intimitaterako eskubidea; adierazpen askatasuna; berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa eta funtzio publikoan baldintza berdinetan sartzeko eskubidea; babes judizial eraginkorrerako eskubidea eta hezkuntzarako eskubidea. Aipatutako oinarrizko-eskubide horiek argiki gurutzatzen eta sarri kontraesanetan sartzen dira hizkuntza-eskubideekin.

Hori esanda, Estatu Espainolean berezko hizkuntza duten autonomietako legerietan herritarren hizkuntza-eskubideek zein aitortza duten aztertuko dugu. Baina horretarako, lehendabizi, oso garrantzitsua den datu bat:

Espainiar Estatuko biztanle guztiek gaztelera jakiteko betebeharra dute. Oстера, ofizialak diren berezko hizkuntzak ezagutzeko betebeharririk autonomia-erkidego gehientsuenetan ez dago. Katalunia da horretan salbuespen bakarra.

### 3.2.1. Hizkuntza-eskubideak berezko hizkuntzadun autonomia-erkidegoetan

Atal honetan berezko hizkuntza duten autonomia-erkidegoetako araudien eduki edo elementu orokorrak azaltzen dira. Beraz, hemen ez da sakonduko autonomia-erkidego zehatzetan herritarrek dituzten eskubide eta betebeharrak; ez da sakonduko ezta ere Estatu mailako edo maila internazionalerako proiektzioa duten araudietan. Hartara, ondokoak dira autonomia-erkidegoetako araudiok jasotzen dituzten elementu nagusiak:

- **Hizkuntza-askatasuna:** Herritar orok du nahi duen hizkuntzan jarduteko eskubidea, baina esparru publikoan eskubide hori mugatua izaten da beste hizkuntza-arau juridiko batzuen eragina tarteko. Haatik, hizkuntza batek ofizialtasuna duenean, Estatu horrek berak nolabaiteko babes legala ematen dio. Horrela bada, legeotan arautze mailaketa ezberdina egiten da esparru pribatuko komunikazioak direnean, eragin publikoa dutenean edo izaera ofizialekoak direnean.
- **Hizkuntza ofiziala ezagutzeko eskubidea:** Hizkuntza bat botere publikoaren eta herritarren arteko komunikazio eraginkorrerako tresna izan behar bada, eta gainera, herritarrek hizkuntza hori erabiltzeko eskubidea badute, bere ezagutza bermatzen dela ziurtatu beharra dago. Horrek, gutxienez, hizkuntza hori hezkuntzan irakasgai izatea eskatzen du. Horrela jasotzen du, Konstituzio Epaitegiaren ebazpen batek ere (83/1983 doktrina). Epaitegi horren arabera, ikasleek Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean erakutsi behar dute hizkuntza ofizialen ezagutza eta gaitasun egokia dutela. Eta helburu hori lortzeko bitarteko nahikoa jartzea hezkuntzari dagokio.
- **Hizkuntza hautatzeko eskubidea:** Hizkuntza hautatzeko eskubidea dagoela esaten da herritarrek berme juridiko guztiak dituztenean botere publikoen zein

pribatuen aurrean nahi duen hizkuntza ofiziala erabiltzeko. Erabilera-hizkuntza hautatzeko eskubideak, printzipioz, bi alderdi ditu: Aktiboa, botere publikoaren zein pribatuaren aurrean erabiltzekoa eta, pasiboa, norberak hautatutako hizkuntzan erantzuna izatekoa.

Eskubide hori eztabaidaezina da Konstituzio Espainolak zein Autonomia Estatutuek argiki horrela agintzen dutenez gero.

Alabaina, jurisprudentziak agerian uzten du eskubide honek praktikan hainbat mugapen izaten dituela, eta horiek gertatzen dira autonomia-erkidegoaz gaindiko erakundeetara zuzentzean. Esaterako, autonomia-erkidegoan delegaziorik ez duten Estatu Espainoleko instituzio zentraletan harremantzean... Hala ere, esan behar da horren harira eskubide berriak agertzen ari direla, esaterako, Senatura berezko hizkuntza batean zuzentzeko aukera (VERNET, J: 280-286). Alabaina, eskubide berriok erabili ahal izatekotan, nahitaez espreski jasota egon behar dira arauen batean. Horrela izan ezean, berezko hizkuntzarekin batera itzulpena aurkeztu behar da Estatuko instituzio zentraletara zein Europako instituzioetara zuzentzeko.

Norantza aktiboan, beraz, aitortuta dago –autonomia-erkidegoko erakundeetan, behintzat- hautatutako hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea. Aitzitik, norberak hautatutako hizkuntzan artatua izateko eskubideak, alegia, norantza pasiboak, eragozpen gehiago aurkitzen ditu. Konstituzio epaitegiaren 82/1986 ebazpenak herritarra berak hautatutako hizkuntzan artatua izatea zilegizat jotzen badu ere, tokian tokiko botere publikoen esku uzten du pixkanaka hori betetzeko ardura, zerbitzu hori emateko baliabide eta bitarteko nahikoa (gaitasuna duten langileak...) izan behar direla iritzita. Horrela eskubide subjektiboa baliabideen mendean geratzen da. Irizpide soziolinguistikoei erreparatuta, esan daiteke jadanik Espainiako Konstituzioa sortu zenetik ia 40 urte pasa direnean, nahikoa

denbora izan dela aipatu eskubidea betetzeko behar diren baliabideak egikaritzeko. Esandakoak esanda, azpimarratu behar da puntu honi dagokionez oso araudi ezberdinak daudela autonomia-erkidegoetan.

Autonomia-erkidegoetako Normalizazio Linguistikoki legeetan erregistro publikoei dagokienez ere, hainbat eskubide jasotzen dira. Esaterako, egindako adierazpenaren edo idazkiaren erregistrorako hizkuntza baldintzatzeko eskubidea, ziurtagiriak egitean eskaeran erabilitako hizkuntzan jasotzekoa... Hala ere, esan behar da sarritan Konstituzio Auzitegiaren irizpideekin talka egiten dutela legeeotan jasotzen diren hainbat arauk<sup>1</sup>.

Hezkuntza esparruan, umeek hasierako hezkuntza –derrigorrezko hezkuntzaren aurreko etapak- bere ama-hizkuntzan burutzeko eskubidea dute.

Bestalde, administrazio publikoaren eremuaz gaindi egin beharreko eskritura publikoetan ere herritarrak, norantza aktiboan bederen, berak hautatutako hizkuntzarako eskubidea du.

- **Hizkuntzagatiko bereizkeria eza:** Irizpide hori nazioarteko hainbat itunetan jaso dagoen bereizkeria ezaren printzipiotik eratortzen zaio Espainiako Estatuari. Ofizialtasun Estatua duten hizkuntzei begirakoa da irizpidea; hartara, hizkuntza ofizialen hiztunek hizkuntza-eskubide guztiak bermatuak izan behar dituzte. Haatik, horrek ez du esan nahi berezko hizkuntza eta gaztelera biak ofizialak izanagatik maila berean edo araudi beraren mendean egongo direnik.

---

<sup>1</sup> Adibidez, kasu horretan Konstituzio Auzitegiaren 87/1997 ebazpenak dio erregistroetako inskripzioetako hizkuntza erakundearen titularrak erabakiko duela.

Irizpide hori ulertzeko kontutan izan behar da testuingurua; hain zuzen, iraganean diskriminazioa jasan duten berezko-hizkuntzei egiten die erreferentzia. Hortaz, ulertu behar da, diskriminazio positiboaren beharra badutela hizkuntza horiek.

- **Ofizialtasuna ez beste Estatus juridiko-linguistiko batzuetatik eratorritako eskubideak:** Ofizialak ez diren berezko hizkuntzak, Espainiako Konstituzioaren 3.3 artikulua hizkuntza-modalitateak deiturikoak nolabait babesteko arauetatik eratortzen dira aipatu eskubideak. Nazioarteko tratatuetatik datoz arau horiek, eta soilik Espainiako Konstituzioarekin talka egiten ez dutenean onartzen dira. Eskubideok ofizialtasun Estatusak dakartzanak baino murrizagoak dira. (VERNET, J. 2003)

### **3.2.2. Espainiako Estatuko berezko hizkuntzak arautzen dituzten legeak**

Atal honetan aztertuko diren legeak Asturiaskoa, Galiziakoa, Balear Uharteetakoa, Aragoikoa, Valentziakoa, Nafarroakoa, Kataluniakoa eta EAEkoa dira.

Kontuan izan helburua ez dela lege bakoitza goitik behera zehazki aztertzea, Espainiako Estatuan diren hizkuntza-politika ezberdinen argazki orokor bat ateratzea baizik. Hortaz, taula honetan eta ondorengo analisian, soilik, hizkuntza-politikon elementu nagusiak jasoko eta alderatuko dira.

Espainiako Konstituzioaren mendeko hizkuntza-lege ezberdinen artean EAEkoa eta Kataluniakoa aztergai

	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA	NAFARROAKO FORU ERKIDEGOA	KATALUNIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA	VALENTZIAKO ERKIDEGOA	ARAGOIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA	BALEAR UHARTEETAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA	GALIZIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA	ASTURIASKO PRINTZERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA
<b>Legea</b>	10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa	18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari Buruzkoa	Llei 1/1998, de 7 de gener, de política lingüística	Llei 4/1983, de 23 de novembre, d'Ús i Ensenyament del Valenciá	Ley núm. 3/2013, de 9 de mayo, de uso, protección y promoción de las lenguas y modalidades lingüísticas propias de Aragón	Llei 3/1986 de normalització lingüística de les illes balears	Llei 3/1983, de 15 de juny, de normalització lingüística	Llei 1/98 de 23 de marzu, d'usu y promoción del bable, asturianu
<b>Estatua</b>	-Euskara berezko hizkuntza eta ofiziala	Hiru Estatus desberdin: -EREMU EUSKALDUNA: ofiziala -EREMU MISTOA: -EREMU EZ-EUSKALDUNA:	-Katalana berezko hizkuntza eta ofiziala -Ofizialak dira katalanezko zeinu hizkuntza eta Aranera* ere.	-Valentziera berezko hizkuntza eta ofiziala. Bi Hizkuntza eremu ezberdin bereizten dira.	-Aragoiera (+modalitateak) eta katalana berezko hizkuntza.	-Katalana berezko hizkuntza eta ofiziala	-Galiziera berezko hizkuntza eta ofiziala	-Asturiera tradiziozko hizkuntza
<b>Hizkuntzaga tiko bereizkeria galarazten da</b>	√	√	√	√	√	√	√	√

Espainiako Konstituzioaren mendeko hizkuntza-lege ezberdinen artean EAEkoa eta Kataluniakoa aztergai

	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA	NAFARROAKO FORU ERKIDEGOA	KATALUNIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA	VALENTZIAKO ERKIDEGOA	ARAGOIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA	BALEAR UHARTEETAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA	GALIZIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA	ASTURIASKO PRINTZERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA
<b>Herritarren eskubideak hizkuntzaren alorrean</b>	<p>Bi hizkuntzak jakin eta erabiltzekoa (pasiboki-aktiboki)</p> <p>-Administrazioan eta edozein entitaterekin</p> <p>-Hezkuntza bi hizkuntzetan burutzekoa</p> <p>-Hedabideetatik euskaraz jasotzekoa</p> <p>-Lanean, politikan, sindikalgintzan euskaraz jardutekoa</p> <p>-Bileretan euskaraz mintzatzekoa</p> <p>-Bi hizkuntzetan informatua izatekoa</p>	<p>Eremu bakoitzean aitortutako Hizkuntza-eskubideak desberdinak dira</p>	<p>Bi hizkuntzak jakin eta erabiltzekoa (pasiboki-aktiboki) harreman pribatu zein publikoetan</p> <p>-Bi Hizkuntzen berdintasun osoa izatekoa (Artatua izatekoa, esparru guztietan libreki erabiltzekoa, babes juridikoa izateko hizkuntzaren alorrean</p> <p>-Generalitatean administrazioari eta Sindic de Greuge<sup>2</sup>si beraien eremuan hizkuntza-bermeak eskatzekoa</p> <p>-Hezkuntza katalanez burutzeko BETEBEHARRA</p>	<p>Bi hizkuntzak jakin eta erabiltzekoa (pasiboki-aktiboki). Harreman pribatu zein publikoetan</p> <p>-Administrazioan</p> <p>-Hezkuntza jasotzekoa</p> <p>-Epaitegien babesa izatekoa hizkuntzaren alorrean</p> <p>-Bileretan, lanean, politikagintzan, sindikalgintzan, erlijioan, ekonomia esparruan, artistikoan zein aisialdian</p> <p>-Hedabideetatik valentzieraz ere informatua izatekoa + valentzieraz parte hartzekoa</p>	<p>Aragoiko hizkuntzak (+ modalitateak) jakiteko eta erabiltzeko-*erabilera nagusiko eremuetan-</p> <p>-Aragoieraren ikaskuntza jasotzekoa</p> <p>-Giza eta ekonomia arloetan erabiltzekoa</p>	<p>Bi hizkuntzak jakin eta erabiltzeko (pasiboki-aktiboki)</p> <p>-Administrazioan</p> <p>-Enpresa publiko eta pribatuetan erabili</p> <p>-Katalanaren ikaskuntza jasotzekoa</p> <p>-Lanean, politikagintzan, sindikalgintzan, erlijioan, ekonomia esparruan, artistikoan zein aisialdian jardun</p> <p>-Bileretan erabili</p> <p>-Hedabideetatik informazioa jaso eta parte-hartu</p> <p>-Babes juridikoa izateko hizkuntzaren alorrean</p> <p>-Epaitegietan itzulpen beharrik gabe erabili</p>	<p>Bi hizkuntzak jakiteko BETEHARRA<sup>3</sup> eta erabiltzeko eskub. (aktiboki).</p> <p>-Administrazioan</p> <p>-Epaitegietan</p> <p>-Babes juridikoa izateko hizkuntzaren alorrean</p> <p>-Hezkuntzan galizera ikasteko BETEBEHARRA</p>	<p>-Asturiera erabiltzekoa ahoz/idatziz</p> <p>-Asturiasko printzerrira (admin) asturieraz zuzentzekoa</p> <p>-Asturiera/bablea ikastekoa</p>

<sup>2</sup> Administrazioaren aurrean babesik gabe dauden herritarren kexak tratatzen dituen erakundea da Sindic de Greuges.

<sup>3</sup> Ekainaren 26ko 84/1986 EPAIAk baliogabetu zuen.

Espainiako Konstituzioaren mendeko hizkuntza-lege ezberdinen artean EAEkoa eta Kataluniakoa aztergai

	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA	NAFARROAKO FORU ERKIDEGOA	KATALUNIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA	VALENTZIAKO ERKIDEGOA	ARAGOIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA	BALEAR UHARTEETAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA	GALIZIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA	ASTURIASKO PRINTZERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA
<b>Ardatz estrategikoa</b>	<p>Administrazioan: Biak pasiboki eta aktiboki</p> <p>Justizian Bi hizkuntzetan aktiboki-pasiboki</p> <p>Hezkuntzan euskaraz etapa guztietan* hautazkoa.</p> <p>Hedabideetan euskara lehenasunez erabil dadin bultzatu</p> <p>Funtzio publikoan: Batzuetan berezko hizkuntza derrigorra, besteetan merezimendua</p> <p>Toponimian: dagokion erakundeak zehaztuko du, jatorrizkoa errespetatuta.</p>	<p>Eremu bakoitzeko ardatz berdinak izan arren, desberdin arautzen dira</p>	<p>Administrazioan: Gobernuan eta hauen mendeko erakundeetan LAN/ARRETA-HIZKUNTZA katalana da.</p> <p>Justizian Bi hizkuntzetan aktiboki-pasiboki</p> <p>Hezkuntzan katalanez etapa guztietan derrigorrez.</p> <p>Hedabideetan: publikoek normalki katalanez + kontzesioek %50 gutxienez.</p> <p>Funtzio Publikoan: Derrigorra bi hizkuntzetan gaitasun nahikoa</p> <p>Toponimian: Katalana hizkuntza ofizial bakarra</p> <p>Eremu sozioekonomikoan katalanaren sustapena.</p>	<p>Administrazioan: Biak, pasiboki eta aktiboki</p> <p>Justizian: Berezko hizkuntzan, aktiboki</p> <p>Hezkuntzan: Valentziera derrigorrezko ikasgaia</p> <p>Hedabideetan: Valentziera sustatuko da</p> <p>Funtzio publikoan: Batzuetan berezko hizkuntza derrigorra, besteetan merezimendua</p> <p>Toponimian: Bi hizkuntza ofizialetan</p>	<p>-Hizkuntza ondarearen babesa</p> <p>-Hizkuntza-ondarearen zabaltea</p> <p>-Hizkuntza-ondarearen kultur promozioa</p> <p>-Hizkuntzaren irakaskuntza (ikaskuntza hautazkoa)</p> <p>-Administrazioan: berezko hizkuntza aktiboki bai</p> <p>Justizian: Berezko hizkuntzan, idatziz aktiboki</p> <p>-Hedabideetan Aragoierazko emisioa sustatuko da, publikoetan zein pribatuetan</p> <p>Funtzio publikoan: Ez du gaia zuzenean lantzen*</p> <p>Toponimian: Erabilera nagusiko guneetan, gazteleraz gain berezko hizkuntzan (hautazkoa)</p>	<p>Administrazioan: Biak, pasiboki eta aktiboki.*</p> <p>Justizian Bi hizkuntzetan aktiboki-pasiboki Rotulazioak ere katalanez*</p> <p>Hezkuntzan: Hizkuntza eta literatuta katalana (balearetakoa) derrigorrezko ikasgaiak</p> <p>Hedabideetan: publikoetan katalana Hizkuntza nagusia izango da</p> <p>Funtzio publikoan: Meritu gisa baloratuko da</p> <p>Toponimian: hizkuntza ofizial bakarra kalatana</p>	<p>Administrazioan: galiziera aktiboki bai</p> <p>Justizian Bi hizkuntzetan aktiboki-pasiboki</p> <p>Hezkuntzan: Hizkuntza eta literatuta galegoa derrigorrezko ikasgaiak.</p> <p>Hedabideetan: publikoetan galiziera ohiko hizkuntza</p> <p>Galizierazko produktzioa sustatu: ikusentzunezkoetan, editorialetan, kuturan...</p> <p>Funtzio publikoan: Derrigorra bi hizkuntzetan gaitasun nahikoa</p> <p>Toponimian: Hizkuntza ofizial bakarra galiziera</p>	<p>Administrazioan: aktiboki bai, pasiboki aukeran (Publikazioak asturieraz bai, Boletin Ofizialetik at).</p> <p>Justizian: Puntu hau ez du aipatzen</p> <p>Hezkuntzan: asturieraren irakaskuntza bermatu. Ikaskuntza hautazkoa.</p> <p>Funtzio publikoan: Berezko hizkuntzaren ezagutza baloratua izan daiteke</p> <p>Asturierazko produktzioa sustatu: hedabideetan, ikusentzunezkoetan eta editorialetan</p> <p>Toponimian: Forma tradizionalen edo elebitan</p>



Espainiako Konstituzioaren mendeko hizkuntza-lege ezberdinen artean EAEkoa eta Kataluniakoa aztergai

	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA	NAFARROAKO FORU ERKIDEGOA	KATALUNIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA	VALENTZIAKO ERKIDEGOA	ARAGOIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA	BALEAR UHARTEETAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA	GALIZIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA	ASTURIASKO PRINTZERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA
<b>Bitarteko betearazleak</b>	-Agintezko xedapenak	-Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofiziala -Euskara-gaztelania itzulpen ofizialeko administrazio unitatea	-Institut d'Étudies Catalans -Consortio para la Normalización Lingüística -Centros de apoyo -Normalizazio planak eta agintezko xedapenak	-Akademia -Finantzazioa -Agintezko xedapenak	-Akademia -Finantzazioa -Agintezko xedapenak	-Katalanaren erakundea* -Finantzazioa -Normalizazio planak, agintezko xedapenak...	-Real Academia Gallega	-La Academia de la Llingua -Finantzazioa eta subentzioak -Agintezko xedapenak

Goiko taulako ardatz estrategikoen errenkadako edukia jasota eta zertxobait garatuta dator hurrengo lerroetan. Taulan aipatu ez arren, legeetan agertzen diren beste zenbait puntu ere irakurri ahal izango dituzue bertan. Izan ere, konparatiba bat egiteko hain garrantzitsuak ez direlakoan edo lege guztietan elementu horiek jorratzen ez direla eta, ez dira taulan barnebiduak izan.

## EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOA

- **Administrazioan:** Herritarrek berezko hizkuntza erabili ahal izango dute pasiboki zein aktiboki. Dokumentazio publikoari dagokionez, espediente edo prozeduretako hizkuntza aldeek aukeratu. EAE barruko erakundeen arau, xedapen eta dokumentu ofizialak ere bi hizkuntzetan argitaratuko dira. Euskara hutsean argitara daitezkeenak tokiko administrazioetakoak izango dira, baldintza soziolinguistikoek hala agintzen dutelako.
- **Justizia esparruan:** Herritarrek aukeratutako hizkuntza ofizialean emango da zerbitzua, itzulpen beharrik gabe. Hala ere ez gai hau gatazka iturri izan da sarritan, izan ere Botere Judizialaren Lege Organikoa da Justizia esparrua arautzen duen lege nagusia eta sarritan talka egiten du autonomia-erkidegoetako Normalizazio Legeek diotenarekin.<sup>4</sup> Justiziako lanpostuen hizkuntza eskakizunak ere lege horrek arautzen ditu.<sup>5</sup>

---

<sup>4</sup> Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231. Artikuluak honela dio.

*Jardun judizial guztietan epaileek, magistratuek, fiskalek, idazkariak eta epaitegietako eta auzitegietako gainerako funtzionarioek gaztelania erabiliko dute, Estatuko hizkuntza ofiziala.*

- *Epaileek, magistratuek, fiskalek, idazkariak eta epaitegietako eta auzitegietako gainerako funtzionarioek Autonomia Erkidegoko hizkuntza propioa erabil dezakete, alderdietako inork, hizkuntza hori ez dakiela alegatuz, aurka egiten ez badu, egoera horrek defentsa-gabezia sor baitezake.*
- *Alderdiak, beren ordezkariak eta zuzentzen dituztenek, baita lekukoek eta adituek ere, jardun judizialak gauzatu behar dituzten lurraldeko Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala erabil dezakete, bai ahozko adierazpenetan baita idatzizkoetan ere.*

- **Hezkuntzan:** Etapa guztietan ikasketak euskaraz burutzeko aukera egongo da. Hizkuntza ereduak egongo dira eta administrazioak erabakiko du tokian tokian zein hizkuntza eredu ezarri baldintza soziolinguistikoen arabera. Edonola, eredu guztietan euskara derrigorrezko ikasgaia, behintzat, bada. Horrez gain, ikastetxe eremuetan euskal-giroa ziurtatuko da –barne nahiz kanpo jardueretan...-. Irakasle ikasketetetan bi hizkuntzen ezagutza osoa bermatzeko neurriak hartuko dira.
- **Hedabideetan:** EAEko hedabideetan euskara lehentasunez erabiliko da. Espainiako hedabideetan euskararen hizkuntza-normalizazioa bultzatuko da.
- **Funtzio publikoan:** Herri administrazioak erabakiko du zein funtziotan den derrigorra euskara. Gainontzekoetan merezimendua izango da.
- **Toponimian:** kasuan kasu, dagokion erakundeak erabakiko du hizkuntza, baina kontutan izango da jatorrizko hizkuntza zein den.
- **Hizkuntza batua**ren zaintzari lehentasuna ematen dio legeak.
- Bide seinaleak bi hizkuntzetan egongo dira.
- Euskal giroa bultzatuko dute: publizitatea euskaraz, entitate komertzialetan, kulturaletan etab. errotulazioa euskaraz...
- Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea helburu duen erakunde publikoa sortuko da. (EUSKO JAURLARITZA, 1982)

---

<sup>5</sup> BJLOko 341. artikuluari jarraiki, "hizkuntza ofizial propioa duten Autonomia Erkidegoetako organo judizialeetan, karrera judizialeko kideei erreserbatutako lanpostuak betetzeko merezimendutzat joko da hizkuntza ofizial propioa jakitea".

## NAFAR FORU KOMUNITATEA

### Erabilera ofizialerako

- Toponimia: gaztelania zein euskara biak dira ofizialak; eremuaren arabera, bata ala bestea lehenetsiko da.
- Justizia esparrua aipatu ere ez du egiten legeak.
- Legeak hiru eremu bereizten ditu: Euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna. Eremu horietako bakoitzean araudia ezberdina da.

### Eremu euskalduna

Eskubideak:

- Bi hizkuntzak jakin eta erabiltzekoa pasiboki zein aktiboki administrazioan, justizian.
- Komunikazio eta argitalpen ofizialetan bi hizkuntzatan edo herritarrak/interesdunak eskatutakoan.
- Langile publikoetako batzuetan derrigorrezkoa da euskara-gaitasun nahikoa izatea; beste batzuetan meritutzat hartuko da.
- Tokiko entitateek errotuloak, argitalpenak... elebitan egingo dituzte. Lehendik daudenak jatorrizkoa mantendu.
- Toponimia: izendapen ofiziala euskaraz. Gaztelerazko izendapenak balego, biak erabiliko lirateke.

Irakaskuntza:

- Hizkuntza ereduak daude: herritarrek hizkuntza-eredua erabaki ahal izango dute.

- Derrigorrezko hezkuntza bukatzean gazteleraz zein euskaraz gaitasun nahikoa izan beharko dute.

### Eremu mistoa

Eskubideak:

- Bi hizkuntzak jakin eta erabiltzekoa aktiboki administrazioan.

Irakaskuntza:

- Ikastetxeetan euskarazko lerroak sortzen joango dira, nahi dutenentzako.

Toponimia: izendapen ofiziala gaur egungoa izango da. Hala ere, gaztelaniazkoek euskarazko jatorrizko izendapenik balute, biak erabiliko lirateke.

- Nahi dutenei euskara ikasketak emango zaizkie, derrigorrezko hezkuntzaren bukaeran euskararen gaitasun nahikoa izateko.

### Eremu ez-euskalduna

Eskubideak:

- Herritarra bi hizkuntzetan zuzen daiteke administrazioa, baina honek eska diezaioke gazteleraz jarduteko edo itzulpen zerbitzua erabili.

Irakaskuntza:

- Ikastetxeetan euskarazko lerroak sortzen joango dira, nahi dutenentzako.
- Nahi dutenei euskara ikasketak emango zaizkie, derrigorrezko hezkuntzaren bukaeran euskararen ezagutza behar adinakoa izateko.

- Gutxieneko ikasle kopurua izan beharko da euskara eskaintza sare publikoan bermatua izan dadin.

Toponimia: izendapen ofiziala gaur egungoa izango da. Hala ere, gaztelaniazkoek euskarazko jatorrizko izendapenik balute, biak erabiliko lirateke.

Bestalde, hedabideei dagokienez, Nafarroako gobernuak progresiboki euskararen presentzia sustatuko du; administrazioaren eskumenekoetan euskararen presentzia egokia izan dadin bergiratuko du. Euskarazko kultur, ikusentzutezko, zein produkzio artistikoa ere sustatuko ditu. (NAFARROAKO GOBERNUA, 1986)

## KATALUNIAKO AUTONOMIA-ERKIDEGOA

Kataluniako Normalizazio Linguistikoko legeal zein Estatutak Katalana berezko hizkuntza izendatzean lehentasun hizkuntza izendatzen dute. Generalitatearen, Administrazio Publikoen, hezkuntzaren... hizkuntza bilakatzen du. Horrek erabat markatzen du bertako hizkuntza-politika, lehentasun osoa ematen baitzaio Katalan hizkuntzaren erabilera esparru guztietan normalizatzeari, eta are gehiago, lehenesteari.

- Eskubideak maila orokorrean izendatzen ditu, esparruak definitu gabe. Esaterako, gaztelararen eta katalanaren berdintasuna azpimarratzen du, eta hortik ondorioztatu behar da Katalanez ikasteko eskubidea...
- Katalanaren hizkuntza-komunitatearen batasuna babesteko elkarlana katalan hiztunak diren beste autonomia-erkidego batzuekin
- Aranera Kataluniako Autonomi Erkidegoan kokatua dagoen Aran bailarakoberezko-hizkuntza da. Aranera aitortzeko eta babesteko legea da Llei 16/1990, de 13 de juliol, sobre el règim especial de la Vall d'Aran.

- **Administrazioan:** gazteleraz artatua izan nahi duen herritarrak eskatzeko eskubidea du, baina, printzipioz katalanez artatuko dute. Haatik, lanerako hizkuntza katalana da. Horrez gain, prozedimendu guztiak, dokumentazioak... katalanez izango dira herritarrak espreski gazteleraz eskatu ezean.
- **Justizia esparruan:** Herritarrek aukeratutako hizkuntza ofizialean emango da zerbitzua, itzulpen beharrik gabe. Bestalde, kontutan izan behar da, aurretik aipatu bezala, autonomia-erkidegoko Normalizazio Legeak hori esan arren, Justiziaren hizkuntza-eraentza BJLOren 231.en artikulua ezartzen duela (Ikus 28. or).
- **Hezkuntzan:** Ikasleak ezin dira ikastetxeetan edo ikasgeletan bereziak izan hizkuntza arrazoiengatik.
- **Hedabideetan:** Arango bailaran Aranera ere emitituko dute. Hedabideetan berezitasuna da kontzesiokoei ere emisioen %50 gutxienez katalanez izatea exijitzen zaiela.
- **Funtzio publikoan:** Langile guztiek bi hizkuntzetan izan beharko dute gaitasun nahikoa, idatziz zein ahoz. Formazioaz gobernu arduratuko da. Eta langile berriei baldintza gisa jarriko zaie idatziz zein ahoz gaitasun nahikoa izatea.
- **Toponimian:** Toponimiak Katalunian hizkuntza ofizial bakarra Katalana du, beraz, Kataluniaz gaindiko erakundeen araudipean daudenak salbu, katalan hutsez izango da toponimia.
- Eremu sozioekonomikoan oso arautua dago katalanaren erabilera: Enpresa publikoek katalana erabili behar dute barne mailan zein kanpora begira etiketatuan etab. Zerbitzu publikoa ematen duten enpresa guztiek errotulazioa eta megafoniako mezuak katalanez egin behar dituzte., eta baita fakturak eta dokumentuak ere. Eta publizitatea, eremu publikotik edo

kontzertatuetatik datorrena, orokorrean, katalanez izango da. Lan-esparruan ere katalana nagusitu dadin neurriak planteatzen ditu.

- Errotulazioak: Katalan hizkuntzan izango dira, baina nazioarteko araudia errespetatuta. (GENERALITAT DE CATALUNYA,1998)

## VALENTZIAKO AUTONOMIA-ERKIDEGOA

Valentzia osoan ofiziala da Valentziera, alabaina bi erabilera-eremu bereizten dira. Bata, valentzieraren erabilera nagusia den eremua eta bestea, gaztelera-hiztunak direnak. Hizkuntzaren irakaskuntzatik zein erabileratik salbuetsi daitezkeen eremuak zeintzuk diren ere zehazten du legeak.

- **Administrazioan:** valentziera zein gaztelera biak erabli daitezke, pasiboki zein aktiboki. Dokumentu publikoak zein hizkuntzatan idatzi agindu-emailiak edo adostasunez erabakiko da. Herritarrekin hartu-emaneko kasuetan, ostera, herritarrak hautatutako hizkuntzan.
- **Justizia esparruan:** herritarrak berezko hizkuntzaren erabilera aktiborako eskubidea izango du, itzultzaile zerbitzurik erabili beharrik gabe. Herritarrekin hartu-eman zuzena duten langileak valentzierar hizkuntzan gaitzeko neurriak hartuko dira. Bestalde, kontutan izan behar da, aurretik aipatu bezala, autonomia-erkidegoko Normalizazio Legeak hori esan arren, Justiziaren hizkuntza-eraentza BJLOren 231.en artikulua ezartzen duela (Ikus 28.or).
- **Hezkuntzan:** Valentziera derrigorrezko ikasgaia izango da unibertsitatetik beherako mailetan. Gaztelera-hiztun izendatutako eremuetan, apurka-apurka sartuko da valentziera hezkuntzan. Hasierako urteetarako eskolako hizkuntza hauta dezakete herritarrek.



Hezkuntzan valentzieraren derrigortasunetik salbuetsita dauden eremuetan ere valentzieraren txertatzeko ahalegina egingo du administrazioak.

- **Hedabideetan:** administrazioak valentziera sustatuko du herritarrek informazioa hizkuntza horretan jasotzeko duten eta hedabideetan hizkuntza horretan parte hartzeko duten eskubidea bermatzeko.
- **Funtzio publikoan:** Herri-administrazioak erabakiko du zein lanpostutarako den derrigorrezkoa berezko hizkuntza. Gainontzeko lanpostuetan merezimendu gisa baloratuko da eta gobernuak erraztuko duen formazioa hautazkoa izango da jaso nahi duenarentzat.
- **Toponimian:** Bi hizkuntza ofizialetan izango da Valentziako Generalitatearen eskumenekoak diren eremuetan. (VALENCIANES, Corts, 1983)

## ARAGOIKO AUTONOMIA-ERKIDEGOA

Aragoierak erabilera nagusiko eremuak ditu izendatuta autonomia-erkidegoaren iparraldeko eta hegoaldeko eremu batzuk eta horietan Aragoiko berezko hizkuntzen erabilera arautua eta babestua dago.

- Aragoiera eta bere modalitateak ondasun historikotzat eta aragoiarraren adierazpide nabarmenentzat ditu; babestu beharrekotzat. Araututa du puntu hau.
- Aragoieraren eta bere modalitateen irakaskuntza bermatzen saiatuko da etapa guztietan (helduentzat ere) erabilera nagusiko eremuetan; baina ikaskuntza borondatezkoa izango da.

- **Administrazioan (epaitegiak, notaritza, administrazio publikoak...):** Herritarrak, soilik erabilera aktiborako eskubidea du; gazteleraz zein berezko hizkuntzan zuzen daiteke administrazioa, eta horrek berezko hizkuntzan erantzun dezake. Barne hizkuntzan, administrazioek gaztelera zein berezko hizkuntza erabiltzeko eskubidea dute; publikazioetan berdin.
- **Justizia esparruan:** Herritarra idatziz berezko hizkuntzan zuzen dakioke justiziarri; justizia administrazioak ere hizkuntza berean erantzun diezaioke. Bestalde, kontutan izan behar da, aurretik aipatu bezala, autonomia-erkidegoko Normalizazio Legeak hori esan arren, Justiziaren hizkuntza-eraentza BJLOren 231.en artikulua ezartzen duela (Ikus 28.or).
- **Hedabideetan:** Aragoiko berezko hizkuntzako -eta bere modalitateetako- produkzioak emititzeko ahalegina egingo da; bai hedabide publikoetan zein pribatuetan, beti ere, hedabideen autonomia printzipioa errespetatuta.
- **Funtzio publikoan:** Ez du espreski gai hau lantzen, baina legeak herritar guztien betebehartzat duenez Aragoiera jakitea, langile publikoentzat ere baldintza izango dela ondoriozta daiteke.
- **Toponimian:** Erabilera nagusiko eremuetan, gazteleraz gain berezko hizkuntza ere erabiliko ahalko da. Gainontzekoetan, gazteleraz. (GOBIERNO DE ARAGÓN, 2013)

## BALEAR UHARTEAK

Balear Uharteetan Katalanaren modalitateak daude eta horiek babestuak izango dira, betiere, katalanaren hizkuntza-batasuna kaltetu gabe. Horrez gain, katalanaren hizkuntza-komunitatea partekatzen duten autonomia-erkidegoen arteko elkarlana sustatuko da.

- **Administrazioan:** Herritarrek berezko hizkuntzaren erabilerarako eskubide aktiboa zein pasiboa aitortuta ditu. Horrez gain, jakinarazpen guztiak (ziurtagiriak...) katalanez egingo dira, interesdunak, espreski, gazteleraz eskatu ezean.

Bestalde, botere publikoen dokumentu edo eredu ofizialak bi hizkuntzetan egon behar dira.

Erregistro publikoak deklarazioaren hizkuntzan egingo dira.

- **Justizia esparruan:** Herritarrek aukeratutako hizkuntza ofizialean emango da zerbitzua, itzulpen beharrik gabe. Bestalde, kontutan izan behar da, aurretik aipatu bezala, autonomia-erkidegoko Normalizazio Legeak hori esan arren, Justiziaren hizkuntza-eraentza BJLOren 231.en artikulua ezartzen duela (Ikus 28. or).
- **Hezkuntzan:** Katalan hizkuntza eta literaturak -balear ikuspegikoak-, gaztelerakoak haina ikastordu izan behar ditu, guxtienez. Irakasle berri guztiei Katalanerako gaitasuna eskatuko zaie, eta lehendik daudenei progresiboki ikas dezaten exijituko. Autonomia-erkidegoko gobernuak hezkuntza katalanez izan dadin bultzatuko du.
- **Hedabideetan:** Autonomia-erkidegoko administrazioen mendekoetan ohiko hizkuntza izango da katalana. Horrez gain, Estatuko kateetako emisioak ere Balear Uharteetan katalanez izaten saiatuko da.
- **Funtzio publikoan:** Lanpostu guztietan kontutan izango da eta meritu gisa baloratu -lanpostu bakoitzari dagokion mailan- katalanaren ezagutza eta gaitasuna.
- **Toponimian:** Toponimian hizkuntza ofizial bakarra Katalana.
- Katalanezko ikusentzunezko eta kultura produkzioa sustatuko da.

- Katalanaren erakundea: Hizkuntzari lotutako aholkularitza Balear Uharteetako unibertsitatearen eskatu uzten du. Horrek, Katalan hizkuntzaren zaintza helburu duen erakunde batean parte har dezake, zeina Katalana berezko hizkuntza duten beste autonomia-erkidego batzuekin elkarlanean osatuko den. PARLAMENT DE LES ILLES BALEARS, 1986).

## GALIZIAKO AUTONOMIA-ERKIDEGOA

- **Administrazioan:** Herritarrek eskubide aktiboa baduten arren, pasiboa ez da espreski aipatzen. Haatik, berariaz jasota ez egoteak ez du esan nahi aitortuta ez dagoenik. Ofizialtasunaren ondorio juridikoa baita.

Argitalpen edo araudi ofizialak bi hizkuntzetan jarriko dira Diario Oficial de Galizian. Gainontzeko dokumentu ofizialetan hizkuntzen erabilera borondatezkoa.

- **Justizia esparruan:** Herritarrak bi hizkuntza ofizialen erabilera aktiborako zein pasiborako eskubidea du. Bestalde, kontutan izan behar da, aurretik aipatu bezala, autonomia-erkidegoko Normalizazio Legeak hori esan arren, Justiziaren hizkuntza-eraentza BJLOren 231.en artikulua ezartzen duela (Ikus 28.or).
- **Hezkuntzan:** Ikasleak ezin dira ikastetxeetan edo ikasgeletan bereziak izan hizkuntza arrazoiengatik.
- Derrigorrezkoa da galizera ikasgaia eta Derrigorrezko Hezkuntza bukatzerako ikasle guztiek izan beharko dute bi hizkuntzetan gaitasun nahikoa.

- **Hedabideetan:** Jabetza edo kudeaketa publikoetan ohikoa izango da galizierazko emisioa. Eta jabetza publikoak ez izan eta galiziera erabiltzen duten medioak lagunduko ditu Gobernuak.
- **Funtzio publikoan:** Galizieraren eta gazteleraren ezagutza ezinbesteko baldintza izango da Escola Galega de Administración Pública titulu eskuratzeko.
- **Toponimian:** hizkuntza ofizial bakarra galiziera izango da.
- Irakasle tituluetan derrigorrezkoa izango da Katalan hizkuntzaren ikaskuntza. Alabaina, ez da zehazten irakasle berriei, zein aurretikoei Katalanaren ezagutza derrigorrezko baldintzatzat ezarriko zaien.
- Galiziako Xuntak derrigortasuna du Ikusentzunezkoen, editorialen, kulturaren galizierazko produkzioa sustatzeko. (XUNTA DE GALICIA, 1983)

## ASTURIASKO PRINTZERRIKO AUTONOMIA-ERKIDEGOA

- **Administrazioan:** asturiera erabiltzeko eskubidea du herritarrak, ostera, erantzun-hizkuntza administrazioaren esku dago. Haatik, administrazio gorenak langile publikoek asturiera ikas dezaten bultzatu eta baloratuko du.
- **Justizia esparruan:** puntu hau aipatu ere ez du egiten legeak.
- **Hezkuntzan:** Asturieraren irakaskuntza bermatuko da, baina hautazko ikasgaia izango da.
- **Hedabideetan:** Asturierak presentzia izan dezan ekonomikoki lagunduko du du gobernua.

- **Funtzio publikoan:** Lanpostuaren nolakotasunaren arabera Asturieraren ezagutza meritutzat baloratua izan daiteke.
- **Toponimian:** Forma tradizionalako izendapena izango da ofiziala. Bi hizkuntzetako izenaren erabilera zabala denean, elebitan onartuko da izena.
- Itzulpengintzarako organoaren funtzioak zehazten dira.
- Kontsultarako organoak izendatzen ditu eta bakoitzari egozten dion funtzioa zehaztu. Horien artean, La Academia de la Llingua dago, eta horri egozten dizkio, besteren artean, asturieraren plangintzen jarraipenak egiteko ardua zein printzerriko erakunde gorenei hizkuntzari lotutako aginduak emateko eskumena. (JUNTA GENERAL DEL PRINCIPADO DE ASTURIAS, 1998).

## ONDORIO BATZUK

Behin normalizazio linguistikoko lege bakoitzaren sintesia jasota, Estatu espainiarrean berezko hizkuntzetan leudekeen hizkuntza-politika ezberdinen argazki orokor bat ateratzea da atal honen jomuga. Horretarako, 2.3. atalean, Espainiako hizkuntza-politiken ezaugarriei buruzkoan, zerrendatutakoak izango ditugu oinarri.

Azterketatxo hau egiterakoan kontutan izan behar dugu Espainiako Estatuan gaztelera ofiziala dela, eta ondorioz, herritar orok ezagutzeko zein erabiltzeko eskubide osoa bermatua eta ezagutzeko derrigortasuna duela. Horri erantsi behar diogu, berezko hizkuntzaren ezagutza betebehartzat dituztela Katalunian eta Galizian. Hori horrela, atal honetan egingo dugun analisisan, gaztelera baino tokian tokiko gutxiengoen-hizkuntzetan jarriko dugu arreta.

## Estatuta

Hemen jaso ditugun zortzi hizkuntza-arauok bereizten dituen ezaugarri nagusia autonomia-erkidego bakoitzeko legeak bere eremuko gutxiengoen hizkuntzei aitortzen dien Estatuta da. Bi multzo handi bereiziko genituzke.

- **Berezko hizkuntzak ofizialtasuna dutenak:** EAE, Katalunia, Valentzia, Balear Uharteak eta Galizia daude.
- **Berezko hizkuntzak ofizialtasunik ez dutenak:** Aragoi eta Asturias sar ditzakegu. Hizkuntza hauek arautzen dituzten legeak ez dira zuzenean Konstituzioa ala Estatutuak.

*Además de la noción de lengua oficial, la Constitución prevé el respeto y la protección de las modalidades lingüísticas (KA 3.3.art). Éste sería, pues, otro fundamento generador de derechos, de acuerdo con lo que establezca la legislación de desarrollo (por ejemplo, Asturias y Aragón). Los derechos de quienes utilizan estas lenguas no derivan pues directamente de la Constitución y del Estatuto, sino que emanan de la normativa reguladora.*

Bada salbuespen bat eta hori Nafarroa da. Nafarroa da autonomia-erkidego horien artean bakarra gaztelera ere berezko hizkuntza duena eta, aldiz, euskara ofiziala, soilik legeak “eremu euskaldun” izendatutakoetan dena.

Valentzieraren kasuan, ofiziala da autonomia-erkidegoan, alabaina, legeak bereiztu egiten ditu valentziera edo gaztelera nagusi diren eremuak, eta valentzieraren irakaskuntzatik eta erabileratik salbuetsi daitezkeenak zehaztu.

Bestalde, aipatu behar da autonomia-erkidego horietako batzuetan hizkuntza bat baino gehiago direla berezkoak eta ofizialak:

- Katalunian Aranera ere (Aran bailarako hizkuntza) ofiziala da. Horrez gain, katalanezko zeinu hizkuntza ere ofiziala dela espreski jasotzen du legeak.

- Aragoierak ere baditu modalitateak, baina kasu honetan, ez Aragoiera ez bere modalitateak ez dira ofizialak.

### Hizkuntza arrazoiengatiko bereizkeria

Normalizazio lege guzti-guztiek aipatzen dute ez dela hizkuntza-arrazoiengatiko bereizkeriarik onartuko, eta gehienek, hizkuntza-eskubideen babeserako justizia epaitegietara zuzentzeko aukera jasotzen dute.

**Hezkuntzari** dagokionez, bi multzo nagusi bereiz ditzakegu:

1. Ikasketak berezko hizkuntzan burutzeko aukera dutenak: EAE, Nafarroa (“Eremu euskaldunean” bermatuta, gainontzekoetan baldintzatuta), Katalunia.
- Multzo honetan ere egoera desberdinak daude: EAEn eta Nafarroako “eremu euskaldunean”, nahiz euskara ofiziala izan, aukerazkoa da ikasketak berezko hizkuntza (euskaraz) burutzea. Katalunian, ostera, berezko hizkuntza (katalana) da derrigorrezko hezkuntzako irakaskuntza-hizkuntza.
2. Berezko hizkuntza ikasteko aukera dutenak hezkuntzan: Aragoi, Asturias eta Galizia.
- Multzo honetan ere egoera desberdinak daude: Galizian derrigorra da ikastetxeetan berezko hizkuntza ikastea. Ostera, Asturiasen eta Aragoian hautazkoa da berezko hizkuntzaren ikaskuntza.

Balear Uharteak bi multzo horietako batean sailkatzerik ez dago *Llei 3/1986 de normalització lingüística de les illes balears* irakurrita. Izan ere, katalana ikasgai gisa ikastetxeetan derrigorrez irakatsi beharra arautzen du, baina pixkanaka egunen batean irakaskuntza katalanez izateko borondatea adierazten du.



**Administrazio publikoekiko eskubideei** dagokionez, hemen ere bi multzo nagusi bereiztu beharko genituzke:

- A. Administrazioarekin pasiboki zein aktiboki berezko hizkuntzan harremantzeko eskubidea jasotzen dutenak: EAE, Nafarroako “eremu euskalduna”, Katalunia, Valentzia eta Balear Uharteak.
- B. Administrazioarekin berezko hizkuntzan harremantzeko, gehienez, eskubide aktiboa aitortua dutenak: Aragoi, Galizia eta Asturias.

Puntu honetan ere multzo bakoitzean aniztasuna dago. A multzokoen artean Katalunia kasu berezia da, izan ere, Katalunian administrazio lan-hizkuntza eta artatzeko hizkuntza ere katalana da. Beraz, herritarrak gazteleraz eskatu ezean, administrazioa beti katalanez zuzendu beharko litzaioke herritarri (Estatuko administrazioa salbu).

B multzokoen artean, Aragoi herritarrek administrazioarekin berezko hizkuntza erabiltzeko eskubide aktiboa aitortua dute Erabilera nagusiko eremu izendatutakoetan. Galizian<sup>6</sup> eta Asturiasen ere erabilera aktiborako eskubidea badago.

Hemen ere, salbuespen nagusia Nafarroan aurki dezakegu. Izan ere, Nafarroako “eremu ez euskaldunean” eskubide aktiboa ere ez dute bermatuta herritarrek administrazio publikoekiko.

---

<sup>6</sup> Galiziako kasuan legean eskubide pasiboa berariaz jasota ez egoteak ez du esan nahi eskubide hori ez dagoenik, izan ere, ofizialtasun estatusak berez aitortzen du eskubide pasiboa.

### Justiziaren esparrua

Legeon arabera, autonomia-erkidego bakoitzean herritarrek hizkuntza-eskubide batzuk dituzte justiziaren aurrean. Nafarroako eta Asturiaseko legeek ez dute arautzen justizia esparrua. Aragoi eta Valentzian soilik erabilera aktiborako eskubidea dute, baina, gainera, Aragoi eskubide hori idatzizko eremura mugatzen da. Gainontzeko autonomia-erkidego guztietan herritarrek justiziaren aurrean hizkuntzaren erabilera aktiborako zein pasiborako eskubidea dute.

Hori da Normalizazio Linguistikoko legeek jasotzen dutena, haatik, aurretik aipatu bezala, Justiziaren hizkuntza-eraentza BJLOren 231.en artikulua ezartzen du eta autonomia-erkidegoetako legeek eta BJLOk araututakoak sarri talka egiten dute (Ikus 28.or).

### Hedabideak

Autonomia-erkidego guztietako legeetan jasotzen da hedabide sozialetan berezko hizkuntzan emititzeko borondatea. Hartara, batzuetan, EAEn, Galizian, Balear Uharteetan eta Katalunian, esaterako berezko hizkuntza lehentasunezkoa izango dela jasotzen da. Katalunian, hedabide publikoetan berezko hizkuntza lehentasunezkoa izateaz gain, hedabide pribatuek ere gutxienez emisioen %50 katalanez egin beharko dutela arautua dago.

Aragoiko, Nafarroako, Valentziako, zein Asturiasko legerian hedabideetan berezko hizkuntza sustatuko dela jasotzen da, baina lehentasun maila kenduta. Alegia, berezko hizkuntzaren presentzia duina edo egokia sustatuko dela, baina beti ere hedabideen autonomia printzipioa errespetatuko dela... eta horrela argumentuak darabiltzate, kasuan kasu.

Gainera, hedabideen puntua legeri guztiek aipatu arren, Asturiasekoak eta Aragoikoak, adibidez, azpi-atal gisa lantzen dute. Horrek asko dio ematen zaion garrantziaz.

### Funtzio publikoan hizkuntzaren trataera

Puntu honetan ere irizpide ezberdinak dituzte autonomia-erkidego batean eta bestean. Katalunian eta Galizian, esaterako, derrigorra da bi hizkuntza ofizialen ezagutza eta erabilera gaitasun nahiko izatea. EAEn, Nafarroan eta Valentzian, lanpostu batzuetarako derrigorrezkoa da bi hizkuntzen ezagutza nahikoa eta beste lanpostuetan meritutzat hartzen daberezko hizkuntzaren ezagutza. Asturiasko legearen arabera, berezko hizkuntzaren ezagutza meritutzat hartua izan daiteke lanpostuaren arabera. Aragoiko legeak, berriz, ez du zuzenean aipatzen puntu hau.

### Toponimia

Toponimiari dagokionez, autonomia-erkidego guztiek arautzen dute eta guztiek onartzen diote bere lekua berezko hizkuntzari. Haatik, multzo ezberdinak bereiz daitezke puntu honetan ere: Katalunian, Balear Uharteetan eta Galizian toponimiarako hizkuntza ofizial bakarra berezko hizkuntza dute izendatua. Valentzian bi hizkuntza ofizialak agertu behar dira. Asturiasen eta EAEn forma tradizionalari emango zaio beti lehentasuna, alabaina, bi hizkuntzetako izendapena ezaguna bada edo dagokion erakundeak hala erabakiko balu elebitan jar daiteke. Valentzian bi hizkuntza ofizialetan jarriko da beti. Eta Aragoian, erabilera nagusiko guneeetan gaztelera beti eta berezko hizkuntza erabiltzeko aukera egongo da, nahi izanez gero –gainontzeko guneeetan soilik gazteleraz-.

## 4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ETA KATALUNIAKO HIZKUNTZA- ARAUDIA

Hurrengo orrialdeetan EAEko eta Kataluniako araudia aztertu eta haien artean alderatuko ditugu. Hizkuntza-politika definitzen duten lege asko daude autonomia-erkidegootan; lan honetan, ordea, Estatutuak eta Normalizazio Linguistikoko legeak aztertuko dira. Edonola, hona hemen legeok aztertzen hasi orduko, nahitaez, kontutan izan beharreko legea. Beronek jartzen du autonomia-erkidegoetako lekeen oinarria eta baita mugatu ere joko zelaia. Honela dio:

### **1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioaren 3.artikulua**

1. Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek dute gaztelania jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea.
2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako Estatutuekin bat etorritz.
3. Espainiako hizkuntza-moten aberastasuna kultur ondarea da eta ondare horrek begirune eta babes berezia izango du.

### 4.1. EAEko eta Kataluniako Estatutuetan hizkuntzari buruzko araudia

EAEko Estatutuaren eta Kataluniako Estatutuaren artean sekulako desberdintasuna dago hizkuntzari ematen zaion trataerari dagokionez. Kataluniakoan askoz garatuago dago hizkuntzaren gaia. Hori horrela, badira zenbait parametro bietan definitu edo arautzen direnak. Osera, badira beste hainbat parametro soilik

Kataluniako Estatutuak lantzen dituena. Beraz, ondorengo azterketatxoa bi zatitan egingo da:

### 4.1.1. Bi Estatutuetan lantzen diren arau parekagarriak

#### **Euskal Herriko Autonomia Estatutua, 1979ko abenduaren 18ko Lege Organikoa**

##### **6. artikulua**

1. Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.
2. Autonomia Erkidegoko instituzio komunek, Euskal Herriaren aniztasun soziolinguistikoa kontuan hartuz, hizkuntza bion erabilera bermatuko dute eta bion ofizialtasuna arautuko, eta haien ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituzte.
3. Inor ezin izango da hizkuntza dela-eta diskriminatu.
4. Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia da instituzio aholku-emaile ofizial.
5. Euskara beste euskal lurralde eta erkidego batzuetako ondare den aldetik eta instituzio akademiko eta kulturazkoek beroriekin izan ditzaketen harreman eta loturez gain, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak eskatu ahal izango dio Espainiako Gobernuari lurralde eta gizatalde horiek kokaturik dauden edota bizi diren Estatuekin kulturazko harremanak bideratzeko tratatu edo hitzarmenak sinatu eta, hala badagokio, Gorte Nagusien aurrean, baimentzeko, aurkeztu ditzala, euskara zaindu eta bultzatze aldera.

##### **35. artikulua**

1. Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.
3. Autonomia Erkidegoari egokituko zaio, bere lurralde barruan, Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileria eta bere jardunerako baliabide material eta ekonomikoz hornitzea, Aginte Judizialaren Lege Organikoan ahalmen hori Gobernuarentzat gorde dadin neurri berean eta langileria hornitzeko sistemetan Euskal Foru Zuzenbidea eta euskara jakitea lehentasunez balioetsiz.

**Ley Orgánica 6/2006, de 19 de julio, de reforma del Estatuto de Autonomía de Cataluña**

**Artículo 6. La lengua propia y las lenguas oficiales.**

1. La lengua propia de Cataluña es el catalán. Como tal, el catalán es la lengua de uso normal y preferente de las Administraciones públicas y de los medios de comunicación públicos de Cataluña, y es también la lengua normalmente utilizada como vehicular y de aprendizaje en la enseñanza.

2. El catalán es la lengua oficial de Cataluña. También lo es el castellano, que es la lengua oficial del Estado español. Todas las personas tienen derecho a utilizar las dos lenguas oficiales y los ciudadanos de Cataluña el derecho y el deber de conocerlas. Los poderes públicos de Cataluña deben establecer las medidas necesarias para facilitar el ejercicio de estos derechos y el cumplimiento de este deber. De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 32, no puede haber discriminación por el uso de una u otra lengua.

3. La Generalitat y el Estado deben emprender las acciones necesarias para el reconocimiento de la oficialidad del catalán en la Unión Europea y la presencia y la utilización del catalán en los organismos internacionales y en los tratados internacionales de contenido cultural o lingüístico.

4. La Generalitat debe promover la comunicación y la cooperación con las demás comunidades y los demás territorios que comparten patrimonio lingüístico con Cataluña. A tales efectos, la Generalitat y el Estado, según proceda, pueden suscribir convenios, tratados y otros mecanismos de colaboración para la promoción y la difusión exterior del catalán.

5. La lengua occitana, denominada aranés en Arán, es la lengua propia de este territorio y es oficial en Cataluña, de acuerdo con lo establecido por el presente Estatuto y las leyes de normalización lingüística.

<b>EAE</b> Euskal Herriko Autonomia Estatutua, 1979ko abenduaren 18ko Lege Organikoa	<b>KATALUNIA</b> Ley Orgánica 6/2006, de 19 de julio, de reforma del Estatuto de Autonomía de Cataluña.
Euskara hizkuntza propioa da Euskara eta gaztelera ofizialak dira	Kataluniako berezko hizkuntza katalana da. Ondorioz, <b>lehentasunezkoa</b> da. Katalana eta gaztelera biak ofizialak dira.
Herritarrek euskara eta gaztelera ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dute.	Herritarrek katalan zein gaztelera ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dute, eta baita <b>derrigortasuna</b> ere.

EAE Euskal Herriko Autonomia Estatutua, 1979ko abenduaren 18ko Lege Organikoa	KATALUNIA Ley Orgánica 6/2006, de 19 de julio, de reforma del Estatuto de Autonomía de Cataluña.
Administrazioek bi hizkuntzon erabilera bermatuko dute	Administrazioek bi hizkuntzon erabilera bermatuko dute. Haatik, erakunde publikoetan <b>lehentasunezko hizkuntza eta erabilera ohikoa duena katalana</b> da. Hezkuntzan ere komunikazio-hizkuntza katalana.
Inor ezingo da hizkuntzagatik diskriminatu	Inor ezingo da hizkuntzagatik diskriminatu
Euskararen hedapen eremuko gainontzeko lurraldeekin hitzarmenak eta elkarlana garatzeko aukera ireki (Estatuarekin hitzarmena adosteko aukera)	Katalanaren hedapen eremuko gainontzeko lurraldeekin hitzarmenak eta elkarlana garatzeko aukera ireki (Estatuarekin hitzarmena adosteko aukera)
Euskararen ezagutza meritutzat hartzen da Justizia Administrazioan	Katalan <b>hizkuntzaren ezagutza egokia eta gaitasun nahikoa derrigorrezkoa</b> da Justizia Administrazioan

Alderaketa taula horretan nabarmentzen denez, euskararen kasuan ez bezala herritarrek Katalana ezagutzeko eta erabiltzeko eskubideaz gain, ezagutzeko derrigortasuna<sup>7</sup> ere badute. Horrez gain, nahiz eta, euskarak zein katalanak biek berezko hizkuntza estatusa izan, eta biak gaztelerarekin batera ofizialak izan, Katalana **lehentasunezko** hizkuntza da. Hori horrela, administrazio publikoetan ohiko erabileran lehentasunezko hizkuntza Katalana izango da, eta hezkuntzan ere komunikazio-hizkuntza Katalana da. Hori esanda, azpimarratu behar da

<sup>7</sup> Konstituzio Auzitegiak 2010eko uztailen zedarritu egin zuen derrigortasunaren esanahia eremu orokorretik eremu pribatura mugatuz: “El deber de conocimiento de la lengua catalana no puede ser entendido como obligación jurídicamente exigible con carácter generalizado”.

“lehentasunezko” izendapen hori Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 28ko 31/2010 ebazpenak baliogabetu egin zuela.

Bestalde, taularen azterketarekin jarraituta, esan EAEko Justizia Administrazioan euskara meritutzat hartzen den bitartean, Katalanaren ezagutza eta erabilera gaitasuna bete beharreko baldintza dela Kataluniako autonomia-erkidegoan.

### **4.1.2. Soilik Kataluniako Estatutuak lantzen dituen parametroak**

Aurreko puntuan aipatu dira *Ley Orgánica 6/2006, de 19 de julio, de reforma del Estatuto de Autonomía de Cataluña*ren artikuluko batzuk. Ohartarazi bezala, soilik EAEko Estatutuak hizkuntzari buruz dituen artikuluekin parekagarri direnak dira orain arte aipatutako artikuluek.

Hori horrela, datozen lerroetan Kataluniako Estatutuan hizkuntzari buruz aurki daitezkeen gainontzeko artikuluek jasoko dira. Alegia, EAEko Estatutuak lantzen ez dituen esparruei lotutakoak.

Esan beharrik ez dago, Kataluniako Estatutuak hizkuntzari lotutako arau nahikotxo gehiago dituela EAEkoak baino. Alabaina, ez bata ez bestea justifikatzeko inongo asmorik gabe, kontuan hartzeko datua da EAEko Estatutua 1982koa dela eta Kataluniakoa 2006koa dela–hain zuzen, 1983ko oinarritzakoaren erreforma–.

Horrela ba, datozen lerroetan Estatutu horrek lantzen dituen gainontzeko artikuluek gainbegiratuko dira, edukietan gehiegi sakondu gabe, Estatutuak jasotzen duenaren zatirik handiena Llei 1/1998, de 7 de gener, de política lingüística legean ere jasoa dagoelako, eta hurrengo puntuan lege hori sakon aztertuko baita.



**Artículo 32.** Derechos y deberes de conocimiento y uso de las lenguas.

Todas las personas tienen derecho a no ser discriminadas por razones lingüísticas. Los actos jurídicos realizados en cualquiera de las dos lenguas oficiales tienen, en cuanto a la lengua, plena validez y eficacia.

Herritarrek bi hizkuntza ofizialak, pasiboki zein aktiboki erabiltzeko duten eskubidea jasotzen du. Bi hizkuntzon erabilerak babes eta balio juridiko osoa duela nabarmentzen du, eta hizkuntzagatiko diskriminazioa ere galarazten du.

**Artículo 33.** Derechos lingüísticos ante las Administraciones públicas y las instituciones estatales.

1. Los ciudadanos tienen el derecho de opción lingüística. En las relaciones con las instituciones, las organizaciones y las Administraciones públicas en Cataluña, todas las personas tienen derecho a utilizar la lengua oficial que elijan. Este derecho obliga a las instituciones, organizaciones y Administraciones públicas, incluida la Administración electoral en Cataluña, y, en general, a las entidades privadas que dependen de las mismas cuando ejercen funciones públicas.

2. Todas las personas, en las relaciones con la Administración de Justicia, el Ministerio Fiscal, el notariado y los registros públicos, tienen derecho a utilizar la lengua oficial que elijan en todas las actuaciones judiciales, notariales y registrales, y a recibir toda la documentación oficial emitida en Cataluña en la lengua solicitada, sin que puedan sufrir indefensión ni dilaciones indebidas debido a la lengua utilizada, ni se les pueda exigir ningún tipo de traducción.

3. Para garantizar el derecho de opción lingüística, los Jueces y los Magistrados, los Fiscales, los notarios, los registradores de la propiedad y mercantiles, los encargados del Registro Civil y el personal al servicio de la Administración de Justicia, para prestar sus servicios en Cataluña, deben acreditar, en la forma establecida en las leyes, que tienen un nivel de conocimiento adecuado y suficiente de las lenguas oficiales, que los hace aptos para ejercer las funciones propias de su cargo o su puesto de trabajo.

4. Para garantizar el derecho de opción lingüística, la Administración del Estado situada en Cataluña debe acreditar que el personal a su servicio tiene un nivel de conocimiento adecuado y suficiente de las dos lenguas oficiales, que lo hace apto para ejercer las funciones propias de su puesto de trabajo.

5. Los ciudadanos de Cataluña tienen el derecho a relacionarse por escrito en catalán con los órganos constitucionales y con los órganos jurisdiccionales de ámbito estatal, de acuerdo con el procedimiento establecido por la legislación correspondiente. Estas instituciones deben atender y deben tramitar los escritos presentados en catalán que tendrán, en todo caso, plena eficacia jurídica.

Administrazio Publikoen aurrean herritarren hizkuntza eskubideak zeintzuk diren zehazten du:

Azpimarratzen du herritarrek bi hizkuntzetan jarduteko eskubide osoa dutela Kataluniako Administrazioarekin, Justizia Administrazioarekin, Ministeritza Fiskalarekin, notaritzarekin, erregistro publikoetan... eta erantzuna, kasu guztietan, haiek eskatutako hizkuntzan izatekoa inongo eragozpenik jasan gabe.

Horrez gain, nabarmentzen du erakunde horiek guztiek egiaztatu egin beharko dutela, Katalunian zerbitzua emateko, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko hizkuntza gaitasuna badutela –langile gaituak dituztela–.

Gaineratzen du, Kataluniako herritarrek eskubidea dutela organo konstituzionalekin eta Estatu mailako justizia organoekin idatziz katalanez harremantzeko eta idatzizko erantzuna ere katalanez izateko. Aitzitik, horri ere zuzenketak egin zizkion Auzitegi Konstituzionalak<sup>8</sup>.

**Artículo 34.** Derechos lingüísticos de los consumidores y usuarios.

Todas las personas tienen derecho a ser atendidas oralmente y por escrito en la lengua oficial que elijan en su condición de usuarias o consumidoras de bienes, productos y servicios. Las entidades, las empresas y los establecimientos abiertos al público en Cataluña quedan sujetos al deber de disponibilidad lingüística en los términos establecidos por ley.

---

<sup>8</sup> Auzitegi Konstituzioaren ekainaren 28ko 31/2010 ebazpenak honela dio: *Este apartado "sería contrario a la Constitución si el Estatuto pretendiera derivar de la cooficialidad de la lengua catalana su cualidad de medio de comunicación jurídicamente válido respecto de poderes públicos no radicados en el territorio de la Comunidad Autónoma de Cataluña. Tal condición es privativa del castellano. [...] La existencia o no de eficacia jurídica de los escritos presentados en catalán a dichos órganos y, en su caso, el grado de ésta ha de ser establecido con entera libertad, dentro de los límites constitucionales (art. 3.1 CE), por el legislador estatal competente."*

Kontsumitzaileek eta erabiltzeek beraiek hautatutako hizkuntza ofizialean –ahoz zein idatziz– artatuak izateko eskubidea dutela aipatzen du legeak. Horretarako, entitateek, enpresek eta establezimenduek hori ahalbidetzeko baliabideak izateko betebeharra dutela nabarmentzen du. Azken puntu horri Konstituzio Auzitegiak zuzenketak<sup>9</sup> egin zizkion.

**Artículo 35.** Derechos lingüísticos en el ámbito de la enseñanza.

1. Todas las personas tienen derecho a recibir la enseñanza en catalán, de acuerdo con lo establecido por el presente Estatuto. El catalán debe utilizarse normalmente como lengua vehicular y de aprendizaje en la enseñanza universitaria y en la no universitaria.
2. Los alumnos tienen derecho a recibir la enseñanza en catalán en la enseñanza no universitaria.] Tienen también el derecho y el deber de conocer con suficiencia oral y escrita el catalán y el castellano al finalizar la enseñanza obligatoria, sea cual sea su lengua habitual al incorporarse a la enseñanza. La enseñanza del catalán y el castellano debe tener una presencia adecuada en los planes de estudios.
3. Los alumnos tienen derecho a no ser separados en centros ni en grupos de clase distintos por razón de su lengua habitual.
4. Los alumnos que se incorporen más tarde de la edad correspondiente al sistema escolar de Cataluña gozan del derecho a recibir un apoyo lingüístico especial si la falta de comprensión les dificulta seguir con normalidad la enseñanza.
5. El profesorado y el alumnado de los centros universitarios tienen derecho a expresarse, oralmente y por escrito, en la lengua oficial que elijan.

Hezkuntzari dagokionez Normalizazio Legeak dioena jasotzen du. Hain zuzen, batetik, ikasle guztiek dutela eskubidea eta betebeharra derrigorrezko hezkuntza bukatzean bi hizkuntza ofizialak, ahoz zein idatziz, maila egokian ezagutzekoa. Beraz, unibertsitate aurreko hezkuntza fasean zein unibertsitatean katalana

---

<sup>9</sup> Zuzenketak ondokoak: “El deber de disponibilidad lingüística de las entidades, empresas, etc. no puede significar la imposición a estas, a su titular o a su personal de obligaciones individuales”.

komunikazio-hizkuntza eta irakaskuntza-hizkuntza izan beharko dela “normalki” azpimarratzen du –. Edonola arau honi ere Konstituzio auzitegiak zuzenketak<sup>10</sup> egin zizkion.

Bestetik, hizkuntza dela-eta ikasleak ezingo direla ikasgela ezberdinetan banatu zehazten du.

**Artículo 36. Derechos con relación al aranés.**

1. En Arán todas las personas tienen el derecho a conocer y utilizar el aranés y a ser atendidas oralmente y por escrito en aranés en sus relaciones con las Administraciones públicas y con las entidades públicas y privadas que dependen de las mismas.
2. Los ciudadanos de Arán tienen el derecho a utilizar el aranés en sus relaciones con la Generalitat.
3. Deben determinarse por ley los demás derechos y deberes lingüísticos con relación al aranés.

Aran bailarako Aran hizkuntzaren ofizialtasunari lotuta, Arango herritarrek Aranera ere pasiboki zein aktiboki, jarduteko duten eskubidea jasotzen du. Generalitatearekin Aranera harremantzeko eskubidea ere zehazten du eta Aranera hizkuntzarekin lotutako eskubide eta betebeharrak arautu beharra nabarmentzen du.

**Competencias de la Generalitat sobre la Administración de justicia**

**Artículo 101.** Oposiciones y concursos 101.3. Las pruebas de los concursos y las oposiciones regulados por el presente artículo, cuando se celebren en Cataluña, podrán realizarse en cualquiera de las dos lenguas oficiales a elección del candidato.

---

<sup>10</sup> Konstituzio Auzitegiaren zuzenketak hezkuntzako hizkuntza-arauari: No cabe interpretar legítimamente que la enseñanza se imparta única y exclusivamente en una de las dos lenguas cooficiales. Es constitucionalmente obligado que las dos lenguas cooficiales sean reconocidas (...) como vehiculares.

**Artículo 102.** Del personal judicial y del resto del personal al servicio de la Administración de Justicia en Cataluña.

1. Los Magistrados, Jueces y Fiscales que ocupen una plaza en Cataluña deberán acreditar un conocimiento adecuado y suficiente del catalán para hacer efectivos los derechos lingüísticos de los ciudadanos en la forma y con el alcance que determine la ley.
2. Los Magistrados, Jueces y Fiscales que ocupen una plaza en Cataluña deben acreditar un conocimiento suficiente del derecho propio de Cataluña en la forma y con el alcance que determine la ley.
3. En todo caso el conocimiento suficiente de la lengua y del derecho propios se valorará específica y singularmente para obtener una plaza en los correspondientes concursos de traslado.
4. El personal al servicio de la Administración de Justicia y de la Fiscalía en Cataluña debe acreditar un conocimiento adecuado y suficiente de las dos lenguas oficiales que los hace aptos para ejercer las funciones propias de su cargo o puesto de trabajo.

**Artículo 143.** Lengua propia

1. Corresponde a la Generalitat de Cataluña la competencia exclusiva en materia de lengua propia, que incluye, en todo caso, la determinación del alcance, los usos y los efectos jurídicos de su oficialidad, así como la normalización lingüística del catalán.
2. Corresponde a la Generalitat y también al Conselh Generau d'Aran la competencia sobre la normalización lingüística del occitano, denominado aranés en Arán.

**Artículo 147.** Notariado y registros públicos

1. Corresponde a la Generalitat de Cataluña, en materia de notarías y registros públicos de la propiedad, mercantiles y de bienes muebles, la competencia ejecutiva que incluye en todo caso:
  - a) El nombramiento de los Notarios y los Registradores de la propiedad, mercantiles y de bienes muebles, mediante la convocatoria, administración y resolución de las oposiciones libres y restringidas y de los concursos, que debe convocar y llevar a cabo hasta la formalización de los nombramientos. Para la provisión de las notarías y de los registros, los candidatos deben ser admitidos en igualdad de derechos y deben acreditar el conocimiento de la lengua y del derecho catalanes en la forma y con el alcance que establecen el Estatuto y las leyes.
3. Corresponde a la Generalitat, en el marco de la regulación general, la competencia ejecutiva en materia de Registro Civil, incluido el nombramiento de sus encargados, interinos y sustitutos, el ejercicio con relación a éstos de la función disciplinaria, así como la provisión de los medios humanos y materiales necesarios para el ejercicio de las funciones. Estos encargados deben acreditar el conocimiento de la lengua catalana y del derecho catalán en la forma y el alcance que establezcan el Estatuto y las leyes.

Estatutuak tarte handia –hori esaterik bada– eskaintzen dio Justizia Administrazioarekiko Generalitatak dituen eskumenei. Eta hori bada berritasuna beherago aztertuko dugun Kataluniako Normalizazio Legearekiko –ez dezagun ahaz, Estatutua berria dela Normalizazio Legea baino–. Behin hori esanda, azpimarratu beharra dago Estatutuari Konstituzio Auzitegiak murrizketa handiak eragin zizkiola orokorrean, eta zehazki hizkuntzaren gaian baita ere.

Oposizioen eta lehiaketen gaineko eskumena Generalitatari egozten dio, eta Justizia Administrazioako magistratu, epaile, fiskal etab.ei, bere funtzioei dagokien hizkuntza betebeharrak ondo betetzeko gaitasun egokia nahitaezko baldintzatzat ezartzen die. Notaritzako, erregistro publikoetako eta gainontzeko langileei ere legeak ezarritako hizkuntza betebeharrak egoki betetzeko hainako gaitasuna nahitaezko baldintzatzat ezartzen die. Eta langileen, enkargatuen, ordezkapenen... gaineko eskumena Generalitataren gain uzten du.

## **4.2. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Kataluniako Normalizazio Legeen azterketa konparatua**

### **4.2.1. Bi legeen eduki-eskema eta eduki-sintesia**

#### **4.2.1.1. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa**

Eduki-eskema:

- Atariko titulua: Printzipio Orokorrak

- Lehen titulua: Herritarren hizkuntza-eskubideak eta botere-publikoen betebeharrak
- Bigarren titulua: Botere publikoen jarduera
- Lehen kapitulua: Euskararen erabilera Administrazio Publikoan Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko lurralde eremuan
- Bigarren kapitulua: Euskararen erabilera irakaskuntzan
- Hirugarren kapitulua: Euskararen erabilera hedabideetan
- Laugarren kapitulua: Euskararen gizarte-erabilera eta beste zenbait alderdi instituzional
- Bosgarren kapitulua: Euskararen erabilera hizkuntza idatzi ofizial gisa

Eduki-sintesia:

- Atariko tituluan euskara EAEko berezko hizkuntza eta euskara zein gaztelania ofizialak izendatzen ditu. Era berean, hizkuntzagatiko diskriminazioa galarazten du.
- Lehen tituluan herritarren hizkuntza eskubideak eta botere publikoen betebeharrak aipatzen ditu.
- Bigarren titulua, berriz, bost kapitulutan garatzen du.
- Lehen kapituluan euskararen erabilera Administrazio Publikoan zein izan behar den arautzen du. Herritarrek administrazioarekin bi hizkuntza ofizialetan harremantzeko eskubidea jasotzen du. Zehazten du administrazioaren arau-xedapen, argitalpen, mezu eta bestelako inprimaki zein idazki-eredu oro bi hizkuntzetan egon behar dela; erregistro publikoetako inskripzioak ere arautzen ditu. Toponimo eta izen ofizialak arautu eta

horiekiko erakunde ezberdinen eskumenak zehazten ditu. Bide-seinale eta mezuak arautzen ditu. Zinpeko Itzultzaile titulua emateko eskumenak Jaurlaritzari ematen dio, baita Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala sortzekoa ere. Euskal Herritik abiatutako garraio publikoko zerbitzuetan ere bi hizkuntzak erabili beharra zehazten du. Azkenik, Administrazio Publikoko edo zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten erakundeetako langileak euskalduntzeko neurriak aurreikusten ditu.

- Bigarren kapituluan euskararen erabilera hezkuntzan arautzen du. Herritarrei aitortzen zaie irakaskuntza bi hizkuntzetan jasotzeko aukera eta hautatu ez duten hizkuntza ikasteko derrigortasuna. Jaurlaritzari egozten zaio hezkuntza-ereduak finkatzeko eskumena. Irakasleen prestakuntza bi hizkuntzetan ere Jaurlaritzaren esku geratzen da. Euskararen kasuan salbuespenak aurreikusten dira.
- Hirugarren kapituluan hedabideetan euskarak izan behar duen erabilera arautzen da, herritarrak euskaraz informatua izateko duen eskubidea oinarri hartuta. Jaurlaritzari egozten dio EAEko hedabideetan euskara sustatzeko ardura eta Espainiakoetan bultzatzekoa. Baita euskara bultzatu eta babestekoa irratian, egunkari eta aldizkarietan irudiaren eta soinuaren grabazioetan, besteak beste.
- Laugarren kapituluan euskararen gizarte erabilera arautu eta berori bultzatzeko ardura Jaurlaritzari ematen dio; baita helduen euskalduntzearen eta alfabetatzearenena ere. Lege honen garapenerako euskararen normalizazioaren inguruan dabilzan erakunde eta elkarten topagunea sortuko duela Jaurlaritzak zehazten du.
- Bosgarren kapituluan Jaurlaritzari egozten dio euskararen batasuna eta normalizazioa begiratzeko ardura.



### 4.2.1.2. Llei 1/1998, de 7 de gener, de política lingüística

Eduki-eskema:

- CAPÍTULO PRELIMINAR: Principios generales
- CAPÍTULO I: El uso institucional
- CAPÍTULO II: La onomástica
- CAPÍTULO III: La enseñanza
- CAPÍTULO IV: Los medios de comunicación y las industrias culturales
- CAPÍTULO V: La actividad socioeconómica
- CAPÍTULO VI: El impulso institucional
- Bigarren kapitulua: Euskararen erabilera irakaskuntzan
- Hirugarren kapitulua: Euskararen erabilera hedabideetan
- Laugarren kapitulua: Euskararen gizarte-erabilera eta beste zenbait alderdi instituzional
- Bosgarren kapitulua: Euskararen erabilera hizkuntza idatzi ofizial gisa

Eduki-sintesia:

- Atariko kapituluan printzipio orokorrak zehazten ditu: Batetik, lege honen helburuak —katalana sustatzekoa eta erabat normalizatzekoa Kataluniako esparru guztietan...— zehazten ditu. Bestetik, Katalana eta gaztelera hizkuntza ofizial izendatzen du, eta Katalanari berezko hizkuntza izaera aitortzen dio. Berezko hizkuntza Estatusak lehentasunezko izaera ematen dio katalanari eta horrek dakarrena definitzen du. Jarraitzeko, herritarren hizkuntza-eskubideak zeintzuk diren ere zehazten du, hizkuntzagatiko

diskriminazioa galarazteaz batera. Katalan hizkuntzaren batasunaren arduraren Institut d'Estudis Catalans erakundeari egozten dio.

- Lehen kapituluaren ondorengo atalak arautzen ditu: Arauen publikazioa, Kataluniako Administrazioen hizkuntza, prozedura administratiboak, Kataluniako Administrazioen langileen hizkuntza-gaitasuna, Estatuko administrazioaren hizkuntza, jardura judiziala, dokumentu publikoak, dokumentu zibilak eta merkataritzakoak, laneko hitzarmen kolektiboak eta erregistro publikoak.
- Lege honek zehazten du Kataluniako Administrazioek orokorrean eta lehentasunez katalana erabiliko dutela, betiere, herritarren hizkuntza hautua eragotzi gabe. Hartara, hizkuntza batean ala bestean independenteki egindako dokumentazio publiko zein pribatuek balio osoa dutela zehazten du; baita Estatuko Administrazioetan, Justizia Administrazioan zein Erregistro Publikoetan.
- Bigarren kapituluaren onomastika arautzen da; toponimiarako eta antroponimiarako arauak definitzen dira.
- Hirugarren kapituluaren hezkuntza arautzen da. Hezkuntzari dagokionez lege honek bi hizkuntza ofizialen ezagutza osoa bermatzen die herritar guztiei. Horrez gain, hizkuntzagatik haurrak taldeetan bereiztea galarazten du. Azkenik, unibertsitatean katalana sustatzeko neurriak zehazten ditu.
- Laugarren kapituluaren hedabideak eta kultur industria arautzen ditu. Irrati eta telebista publikoak eta kontzesiozkoak arautzen ditu, baita idatzizkoak ere. Kultur industria eta arte-espektakulua ere arautzen ditu, eta baita hizkuntzaren industria eta informatika ere.
- Bosgarren kapituluaren, sozioekonomia esparruko katalanaren erabilera arautzen du. Ondorengo atalak zehazten ditu: Enpresa publikoak edota

zerbitzu publikoa ematen dutenak, Arreta zerbitzua, Kontzertatutako edo diruz lagundutako enpresak, Kontsumitzaileentzako eta erabiltzaileentzako informazioa, publizitatea eta lan-jarduera. Sozioekonomia esparruan merkatu arrazoiengatik-edo katalan hizkuntza gutxiegi erabiltzen dela eta Katalanaren erabilera sustatzeko arauak ezartzen ditu. Ondotik, erakunde publikoak, kontzesiokoak edo zerbitzu publikoa ematen dutenak, modu aktiboan sartzan dira hizkuntza normalizazioko prozesuan kontsumitzaileen eskubideak betetzeko derrigortasunarekin.

- Seigarren kapituluan instituzioek katalan hizkuntzari eman beharreko bultzada arautzen du. Horren barnean aipatzen du tokiko administrazioekin batera egoera soziolinguistikoak eskatzen duen lekuetan hizkuntzaren bultzadarako Consorcios para la Normalización Lingüísticak antolatzea. Era berean, hizkuntza normalizaziorako plangintzak gauzatu eta betearaztearen erantzukizuna egozten dio Generalitatari.

## 4.2.2. Bi legeen arteko alderaketa

### 4.2.2.1. Bi legeetan lantzen diren arau parekagarriak

EAE:	KATALUNIA
10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoa	Llei 1/1998, de 7 de gener, de política lingüística
<b>2. artikulua</b> Euskara da Euskal Herriko hizkuntza propioa.	<b>Artículo 2.</b> La lengua propia.
<b>3. artikulua</b> Euskara eta gaztelania dira hizkuntza ofizialak Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan.	1. El catalán es la lengua propia de Cataluña y la singulariza como pueblo. 2. El catalán, como lengua propia, es: a) La lengua de todas las instituciones de Cataluña, y en especial de la Administración de la Generalidad, de la Administración local, de las Corporaciones públicas, de las empresas y los servicios públicos, de los medios de comunicación institucionales, de la enseñanza y de la toponimia. b) La lengua preferentemente utilizada por la Administración del Estado en Cataluña en la forma que ella misma determine, por las demás instituciones y, en general, por las empresas y entidades que ofrecen servicios al público. 3. Lo dispuesto en el apartado 2 implica un compromiso especial de las instituciones para promocionar su conocimiento y fomentar su uso entre los ciudadanos y ciudadanas, con independencia del carácter oficial del catalán y del castellano.

EAEen euskara da berezko hizkuntza, eta euskara eta gaztelera dira hizkuntza ofizialak. Katalunian ere Katalana da berezko hizkuntza, baina Katalana eta gaztelera dira berezko hizkuntzak. Alabaina, Katalunian berezko hizkuntza izaerak

EAEEn ez bezalako ezaugarri batzuk dakarzkio Katalanari. Esan nahi baita, Katalunian berezko hizkuntza Katalana denez, lehentasunezko hizkuntza bilakatzen da de facto. Ondorioz, Kataluniako Administrazio publikoaren, Generalitataren eta zerbitzu publikoa ematen duten bestelako erakundeen hizkuntza Katalana da. Katalana bilakatzen da hedabideetako, hezkuntzako, toponimiako... lehentasunezko hizkuntza. Hartara, Administrazioaren eginkizuna bilakatzen da Katalan hizkuntzaren ezagutza zabalitzea eta erabilera sustatzea.

EAE: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa	KATALUNIA Llei 1/1998, de 7 de gener, de política lingüística
<p><b>30. artikulua</b></p> <p><i>Jaurlaritzak euskararen batasuna eta normalizazioa begiratuko ditu, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko lurralde osoan idatzizko hizkuntza ofizial komun denez, Euskal Herriaren kultura-ondarearen funtsezko zati diren euskalkiei bizirik diren tokietan zor zaien errespetua gorabehera.</i></p>	<p><b>Artículo 6.</b> <i>La unidad de la lengua catalana.</i></p> <p><i>1. La lengua catalana es un patrimonio que Cataluña comparte con otros territorios con los que constituye una misma comunidad lingüística. La Generalidad ha de velar por la protección de la unidad del catalán y ha de fomentar el uso y la proyección exterior del catalán y la comunicación entre los distintos territorios de habla catalana.</i></p> <p><i>2. De acuerdo con la legislación vigente, corresponde al Institut d'Estudis Catalans la autoridad lingüística.</i></p>

EAEko Estatutuak euskararen batasunari garrantzia eman eta begiratzeko ardua hartzen duen moduan, Kataluniako legeak ere Generalitateari Katalan hizkuntzaren batasuna babesteko erantzukizuna egozten dio.

Bestalde, Kataluniako Normalizazio Legeak Institut d'Estudis Catalans erakundeari aitortzen dio nolabaiteko hizkuntza autoritatea. EAEko Normalizazio Legeak ez du puntu hau aipatzen, alabaina, EAEko Estatutuaren 6. artikulua arabera Euskaltzaindia da euskarari dagozkionetan instituzio aholku-emale.

<b>EAE:</b> <b>10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa</b>	<b>KATALUNIA</b> <b>Llei 1/1998, de 7 de gener, de política lingüística</b>
<p><b>4. artikulua</b></p> <p>Botere publikoek Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza dela-eta inor diskriminatu ez dadin zainduko dute eta neurri egokiak hartuko dituzte.</p> <p><b>5. artikulua</b></p> <p>1. Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz.</p> <p>2. Euskal Herriko herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:</p> <p>a) Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein organismo edo erakunderekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz.</p> <p>b) Irakaskuntza hizkuntza ofizial biotan izateko eskubidea.</p> <p>c) Aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea.</p> <p>d) Lanbide-jarduerak, langintza, politikagintza eta sindikatu-jarduera euskaraz egiteko eskubidea.</p> <p>e) Edozein bilkuran euskaraz mintzatzeko eskubidea.</p> <p>3. Botere publikoek eskubide hauen erabilera ziurtatuko dute Autonomia Erkidegoko lurraldean, eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen.</p>	<p><b>Artículo 4.</b> Los derechos lingüísticos.</p> <p>1. De acuerdo con el artículo 3 del Estatuto de Autonomía, y en el marco de una política activa de la Generalidad para crear las condiciones que permitan llegar a la igualdad plena en cuanto a los derechos y deberes lingüísticos, en Cataluña todas las personas tienen derecho a:</p> <p>a) Conocer las dos lenguas oficiales.</p> <p>b) Expresarse en cualquiera de las dos lenguas oficiales, oralmente y por escrito, en las relaciones y actos públicos y privados.</p> <p>c) Ser atendidas en cualquiera de las dos lenguas oficiales en los términos que la presente Ley establece.</p> <p>d) Utilizar libremente cualquiera de las dos lenguas oficiales en todos los ámbitos.</p> <p>e) No ser discriminadas por razón de la lengua oficial que utilizan.</p> <p>2. Todas las personas pueden dirigirse a los Juzgados y los Tribunales para obtener la protección judicial del derecho a utilizar su lengua.</p> <p>3. Todas las personas pueden dirigirse a la Administración de la Generalidad y al Síndic de Greuges solicitando que, en el ámbito de sus competencias, actúen para garantizarles los derechos lingüísticos de forma específica.</p>

Normalizazio legearen arabera EAEn herritar guztiek dute euskara zein gaztelera ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea, ahoz zein idatziz; baita bi hizkuntzotan

artatua izatekoa ere. Bi hizkuntzon erabilerak berme-juridiko guztiak izango ditu eta ez da onartuko hizkuntzagatiko diskriminaziorik. Katalan legeak ere, horrelaxe arautzen du berari dagokion eremuan. Alabaina, legeek oso antzeko irizpidea izan arren, EAEn kasuan praktikak segituan egiten du talka arauak dioenarekin. Izan ere, nahiz eta bi hizkuntza ofizialetan artatua izateko eskubidea izan herritarrak, “artatzaileak” euskara ez badaki kolokan jartzen da herritarraren eskubidea. Hor sortzen den gatazkaren muina da EAEn herritarrek ez dutela euskara ikasteko derrigortasunik; Katalunian, ordea, bai.

<b>EAE:</b> <b>10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa</b>	<b>KATALUNIA</b> <b>Llei 1/1998, de 7 de gener, de política lingüística</b>
<p><b>6. artikulua</b></p> <p>1. Herritar guztiei aitortzen zaie, Autonomia Erkidegoko lurraldean, Administrazio Publikoarekiko harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea, eta beren aukerako hizkuntza ofizialean hartuak izatekoa.</p> <p>Horretarako, neurri egokiak hartuko dira eta beharrezko bitartekoak bideratuko eskubide hori arian-arian gauzatu dadin bermatzeko.</p> <p>2. Pertsona batek baino gehiagok esku hartzen duen espediente edo prozeduretan, alde biek adostasunez erabakitzen duten hizkuntza erabiliko dute botere publikoek.</p>	<p><b>Artículo 9.</b> La lengua de las Administraciones de Cataluña.</p> <p>1. La Generalidad, las Administraciones locales y las demás Corporaciones públicas de Cataluña, las instituciones y empresas que dependen de las mismas y los concesionarios de sus servicios deben utilizar el catalán en sus actuaciones internas y en la relación entre ellos. También deben utilizarlo normalmente en las comunicaciones y notificaciones dirigidas a personas físicas o jurídicas residentes en el ámbito lingüístico catalán, sin perjuicio del derecho de los ciudadanos y ciudadanas a recibirlas en castellano, si lo solicitan.</p> <p><b>Artículo 10.</b> Los procedimientos administrativos.</p> <p>1. En los procedimientos administrativos tramitados por la Administración de la Generalidad, las Administraciones locales y las demás Corporaciones de Cataluña debe utilizarse el catalán, sin perjuicio del derecho de los ciudadanos y ciudadanas a presentar documentos, hacer manifestaciones y, si lo solicitan, a recibir notificaciones en castellano.</p>

EAEko legeak zehazten duenez, Administrazio Publikoarekiko harremanetan euskara nahiz gaztelania, aktiboki nahiz pasiboki erabiltzeko eskubidea du herritarrak. Pertsona bat edo gehiagoko espediente edo prozeduretan aldean artean adostuko da hizkuntza.

Kataluniako kasuan 9. artikulua ezartzen du desberdintasuna; hain zuzen, Kataluniako Administrazio publikoetako lan-hizkuntza katalana dela esaten duenak. Izan ere, 10. artikulua Administrazio prozeduretako hizkuntza araua zehazten du, eta hori euskarak duenaren oso antzekoa da; alegia, herritarrek eskubidea dute bi hizkuntzetako edozein erabiltzeko pasiboki zein aktiboki. Baina lan-hizkuntza eta Administrazioetako lehentasun hizkuntza Katalana izatean, herritarrekiko harremanetarako lehentasun hizkuntza ere katalana da –betiere, herritarraren hizkuntza-hauturako eskubidea urratu gabe-.

<b>EAE:</b> <b>10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoa</b>	<b>KATALUNIA</b> <b>Llei 1/1998, de 7 de gener, de política lingüística</b>
<p><b>7. artikulua</b></p> <p>1. Autonomia Erkidegoaren mendeko erregistro publikoetan, direla Jaurlaritzarenak, beraren ente autonomoenak, foru-administrazioenak, toki-administrazioenak edota besterenak, dokumentuak inskribatzea dokumentuok idatzita dauden hizkuntza ofizialean egingo da.</p> <p>2. Autonomia Erkidegoaren mendeko ez diren erregistro publikoetan, Eusko Jaurlaritzak euskararen erabilerearen normalizazioa bultzatuko du, eskumena duten organoekin elkar hartuta.</p> <p>3. Inskripziook erakusteko nahiz ziurtagiriak luzatzeko, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetatik edozeinetarako itzulpena ziurtatuko da.</p>	<p><b>Artículo 17.</b> Los Registros públicos.</p> <p>1. Son válidos los asientos registrales realizados en cualquiera de las dos lenguas oficiales.</p> <p>2. En todos los Registros públicos de Cataluña, salvo aquellos que tienen sólo carácter administrativo, los asientos deben realizarse en la lengua oficial en que está redactado el documento o en que se realiza la manifestación. Si el documento es bilingüe, se realizan en la lengua indicada por quien lo presenta a registro.</p> <p>3. Los Registradores deben expedir las certificaciones en la lengua oficial utilizada en la petición.</p> <p>4. Las oficinas de los Registros deben estar en condiciones de atender a los ciudadanos y</p>



EAE: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa	KATALUNIA Llei 1/1998, de 7 de gener, de política lingüística
	<p>ciudadanas en cualquiera de las dos lenguas oficiales y deben contar con personal que tenga un conocimiento adecuado y suficiente de las mismas, que lo haga apto para ejercer las funciones propias de su puesto de trabajo.</p> <p>5. Debe garantizarse que en la oficina del Registro pueda hacerse con inmediatez y fiabilidad, oralmente o por escrito, la interpretación y traducción de cualquier asiento a la lengua oficial solicitada por la persona interesada.</p>

EAEko nahiz Kataluniako erregistro publikoetan, idatzita dauden hizkuntza ofizialean inskribatuko dira dokumentuak. Puntu honetan ez dago desberdintasun handiegirik arauari dagokionez. Aipatzekotan, Katalan legeak Erregistroko bulegoetako langileek bi hizkuntzetan izan beharreko gaitasun nahikoa zehazten duela azpimarratu daiteke.

EAE: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa	KATALUNIA Llei 1/1998, de 7 de gener, de política lingüística
<p><b>8. artikulua</b></p> <p>1. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan kokatutako botere publikoek emandako arau-xedapen zein ebazpen ofizial orok bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du zabalkunde ofiziala egiteko.</p> <p>2. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan kokatutako botere publikoek esku hartzen duten egintza guztiek eta baita Administrazioaren jakinarazpen eta adierazpenek ere bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dute, salbu eta interesdun partikularrek Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialeko bat</p>	<p><b>Artículo 8.</b> La publicación de las normas.</p> <p>1. Las Leyes que aprueba el Parlamento de Cataluña se publican, en ediciones simultáneas en catalán y en castellano, en el «Diario Oficial de la Generalidad de Cataluña». Corresponde al Parlamento realizar su versión oficial castellana.</p> <p>2. La publicación en el «Diario Oficial de la Generalidad de Cataluña», si procede, de las disposiciones generales y las resoluciones normativas del Gobierno, la Administración y las instituciones de la Generalidad y de las Administraciones locales de Cataluña se realiza en</p>

<p>berariaz erabiltzea aukeratzen badute.</p> <p>3. Aurrekoan agindutakoa gorabehera, botere publikoek euskara bakarrik erabili ahal izango dute toki-administrazioaren eremuan baldin eta, udalerriaren ezaugarri soziolinguistikoak direla-eta, herritarren eskubideak kaltetzen ez badira. (Paragrafo hori Konstituzio Auzitegiak ekainaren 26ko 169/1983 epaiaren bidez deuseztatu egin zuen)</p>	<p>ediciones simultáneas en catalán y en castellano.</p> <p><b>Artículo 14.</b> Los documentos públicos.</p> <p>1. Son válidos los documentos públicos otorgados en cualquiera de las dos lenguas oficiales.</p> <p>2. Los documentos públicos deben redactarse en la lengua oficial que escoja el otorgante, o, si hubiera más de uno, en la lengua que acuerden. Si no existe acuerdo en lo que se refiere a la lengua, la escritura o documento debe redactarse en ambas lenguas oficiales.</p> <p>3. Antes de redactar el documento, debe preguntarse explícitamente a los otorgantes qué lengua escogen; en ningún caso la elección de una u otra debe suponer retraso en la redacción y autorización del documento. Si no se escoge expresamente la lengua, el documento se redacta en catalán.</p>
---	---

Aipatu arauetan ere antzekotasunak badaude bai, baina ezberdintasun esanguratsurik ere badago: EAEko botere- edo administrazio-publikoetatik eratorritako arau-xedapen edo ebazpen ofizial oro bi hizkuntzatan egin behar da. Katalunian ere horrela da, beharbada, bi hizkuntzetan une berean argatiratu beharraren ñabardura erantsita.

Bestelako dokumentu edo jakinarazpen administrazio publikoetatik datozenean, EAEren kasuan bi hizkuntzetan egon beharko da, herritar hartzaileak bi hizkuntzetako batean egitea eskatzen ez badu. Kataluniaren kasuan, berriz, hartzaileek erabakiko dute hizkuntza, eta hala ez bada, Katalana izango da agiriotan erabiliko den hizkuntza.

EAEko legeak 8. artikularen 3. puntuan aipatu dokumentuok euskara hutsez egin ahalko ziren eramuak zehaztu zituen. Haatik, Konstituzio Auzitegiak deuseztu egin zuen arau hori.

EAE: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa	KATALUNIA Llei 1/1998, de 7 de gener, de política lingüística
<p><b>9. artikulua</b></p> <p>1. Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritar guztiek beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela.</p> <p>2. Euskaraz aurkeztutako idazki eta agiriak, eta baita epaile-jardunak, balio eta eragin-indar osokoak izango dira.</p>	<p><b>Artículo 13.</b> Las actuaciones judiciales.</p> <p>1. Son válidas las actuaciones judiciales, tanto las orales como las escritas, realizadas en cualquiera de las dos lenguas oficiales, sin necesidad de traducción.</p> <p>2. Todas las personas tienen derecho a relacionarse, oralmente y por escrito, con la Administración de Justicia en la lengua oficial que escojan y ser atendidos, y no se les puede exigir traducción alguna.</p> <p>3. Todas aquellas personas que lo soliciten deben recibir en la lengua oficial solicitada los testimonios de las sentencias y autos resolutorios que les afecten, sin retrasos por razón de lengua.</p>

Teorian, behintzat, bi legeek kointziditzen dute Justizia Administrazioarekiko harremanetarako hizkuntza erabilera arautzerakoan: Bi herrialdeetan herritarrek Justizia Administrazioa haiek hautatutako hizkuntza ofizialean zuzentzeko eskubidea dute. Gainera, inork ezin diezaieke itzulpenik eska. Horrez gain, bi hizkuntzetan agiri guztiek balio eta eragin-indar osoa dute.

Katalan legeak zehazten hala eskatzen dutenek beraiek eskatutako hizkuntza ofizialean jaso behar dituztela ebazpenen testigantzak eta auto erabakigarriak.

Baina puntu honetan ere kontraesan nabarmena sortzen da EAEko 9. artikulua dioenaren eta Justizia Administrazio lanpostu guztietarako hizkuntza gaitasuna nahitaezko ez izatearen artean. Langileek euskara gaitasunik ez badute nola bermatu herritarren eskubidea hizkuntza bietan, itzulpenik gabe, jarduteko eskubidea?

<p><b>EAE:</b> 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoa</p>	<p><b>KATALUNIA</b> Llei 1/1998, de 7 de gener, de política lingüística</p>
<p><b>10. artikulua</b></p> <p>1. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde, udalerrri, biztanlegune, geografia-gorabehera, hiri-bide eta, oro har, toponimo guztien izen ofizialak Jaurlaritzak, lurralde historikoetako foru-organoek edota toki-korporazioek finkatuko dituzte, zeinak bere eskumenen eremuan eta, betiere, jatorrizko izen euskaldun, erromantze ala gaztelaniazkoa errespetatuz, hizkuntza bakoitzari dagokion idazkera akademikoarekin.</p> <p>Aurreko paragrafoan aipatutako izen ofizialei buruzko gatazka pizten bada toki-korporazioen eta Eusko Jaurlaritzaren artean, Eusko Jaurlaritzak ebatziko du Euskaltzaindiari iritzia eskatu ondoren.</p> <p>2. Kale-bideetan jarritako bide-seinale eta mezuak bi hizkuntzetan idatzita egongo dira, betiere nazioarteko arauak errespetatuz eta erabiltzaileentzako ulergarritasun- eta segurtasun-eskakizunak betez.</p> <p>3. Bi izenok zeharo desberdinak badira, biak izango dira ofizial, besteak beste, bide-seinaleetarako.</p>	<p><b>Artículo 18.</b> La toponimia.</p> <p>1. Los topónimos de Cataluña tienen como única forma oficial la catalana, de acuerdo con la normativa lingüística del Institut d'Estudis Catalans, excepto los del Valle de Arán, que tienen la aranesa.</p> <p>2. La determinación de la denominación de los municipios y las comarcas se rige por la legislación de régimen local.</p> <p>3. La determinación del nombre de las vías urbanas y núcleos de población de todo tipo corresponde a los Ayuntamientos, y la de los demás topónimos de Cataluña corresponde al Gobierno de la Generalidad, incluidas las vías interurbanas, sea cual sea su dependencia.</p> <p>4. Las denominaciones a que se refieren los apartados 2 y 3 son las legales a todos los efectos y la rotulación debe concordar con las mismas. Corresponde al Gobierno de la Generalidad reglamentar la normalización de la rotulación pública, respetando en todos los casos las normas internacionales que han pasado a formar parte del derecho interno.</p> <p><b>Artículo 19.</b> La antroponimia.</p> <p>1. Los ciudadanos y ciudadanas de Cataluña tienen derecho al uso de la forma normativamente correcta en catalán de sus nombres y apellidos y a incluir la conjunción «i» entre los apellidos.</p> <p>3. La presente norma es aplicable a los nombres y apellidos araneses con respecto a la normativa lingüística aranesa.</p>

Toponimia arautzerakoan desberdintasun nabarmena dago bi legeen artean. EAEko legeak izenen jatorrizko forma mantentzeari ematen dio lehentasuna; Kataluniakoak, berriz, Kataluniako toponimoen forma ofizial bakarra Katalana dela zehazten du –Aran bailaran, salbu–.

Kaleetako bide-seinale eta mezuak bi hizkuntzetan idatzita egongo dira EAEn, eta Kataluniako legeak ez du puntu hori zehazten. Bi-biek azpimarratzen dute nazioarteko arauak errespetatzeko konpromisoa.

Bestalde, Kataluniako legeak Toponimiaren atalean 19. artikuluan antroponimia ere arautzen du. Bertan izen abizenak Katalan formara moldatzeko herritarrek duten eskubidea aitortzen du.

<b>EAE:</b> <b>10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa</b>	<b>KATALUNIA</b> <b>Llei 1/1998, de 7 de gener, de política lingüística</b>
<p><b>11. artikulua</b></p> <p><i>Euskal Herritik abiatzen diren garraio publikoko zerbitzu guztietan inprimakiak, iragarkiak eta herritarrentzako mezuak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.</i></p>	<p><b>Artículo 31.</b> <i>Las empresas de servicio público.</i></p> <p>1. <i>Las empresas y entidades públicas o privadas que ofrecen servicios públicos, como son las de transporte, suministros, comunicaciones y otras, han de utilizar al menos el catalán en la rotulación y en las comunicaciones megafónicas.</i></p> <p>2. <i>Las comunicaciones y notificaciones escritas dirigidas a personas residentes en Cataluña por las empresas y entidades a que se refiere el apartado 1, incluidas las facturas y demás documentos de tráfico, deben realizarse, al menos, en catalán, sin perjuicio del derecho de los ciudadanos y ciudadanas a recibirlos en castellano si lo solicitan.</i></p>

EAEko legeak zehazten du garraio publikoko zerbitzuetan mezuak –inprimakiak, iragarkiak...– bi hizkuntza ofizialetan joan behar direla. Desberdintasun nabarmena

dagoo Katalan legearekin, honek “gutxienez, katalana” joan behar dela azpimarratzen baitu. Horrek esan nahi du, lehentasun osoa Katalanari ematen zaiola eta gaztelerarik gabe ibil daitezkeela.

Kataluinako legeak, aipatutakoaz gain, zehazten du zerbitzu publikoa ematen duten entitate edo enpresek herritarrei helarazten dizkietan faktura eta bestelako dokumentuak ere, gutxienez katalan hizkuntzan idatzita egon behar direla.

<b>EAE</b> 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa	<b>KATALUNIA</b> Llei 1/1998, de 7 de gener, de política lingüística
<p><b>13. artikulua</b></p> <p><i>Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan botere publikoek erabili beharreko inprimaki edo idazki-eredu ofizial guztiek bi hizkuntzetan egon beharko dute.</i></p>	<p><b>Artículo 14.</b> Los documentos públicos.</p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Son válidos los documentos públicos otorgados en cualquiera de las dos lenguas oficiales.</li><li>2. Los documentos públicos deben redactarse en la lengua oficial que escoja el otorgante, o, si hubiera más de uno, en la lengua que acuerden. Si no existe acuerdo en lo que se refiere a la lengua, la escritura o documento debe redactarse en ambas lenguas oficiales.</li><li>3. Antes de redactar el documento, debe preguntarse explícitamente a los otorgantes qué lengua escogen; en ningún caso la elección de una u otra debe suponer retraso en la redacción y autorización del documento. Si no se escoge expresamente la lengua, el documento se redacta en catalán.</li></ol>

EAEko legea botere publikoen idazki ofizial oro bi hizkuntzetan egoteko derrigortasuna ezartzen du. Kataluniako legean, berriz, hartzaileak zein hizkuntzatan jaso nahi duen zehaztu ezean, dokumentua Katalanaz egongo da. Katalan legeari dagokionez, ez Normalizazio Legean, ez Estatutuan ez ditu espreski

aipatzen idazki-ofizialak, alabaina uler daiteke herritarrak bestelakorik eskatzen ez duen artean Katalana izango dela horietan ere erabiliko den hizkuntza.

EAE 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoa	KATALUNIA Llei 1/1998, de 7 de gener, de política lingüística
<p><b>14. artikulua</b></p> <p>1. Lege honen 6. artikuluan aitortutako eskubideak gauzatzeko, botere publikoek Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan Administrazio Publikoari atxikitako langileria gero eta euskaldunagotzeko neurriak hartuko dituzte.</p> <p>2. Botere publikoek finkatuko dute zein lanpostutarako izango den nahitaezko bi hizkuntzak jakitea.</p> <p>3. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuko Administrazio gainerako lanpostuetara sartzeko egiten diren hautaprobetan hizkuntza ofizialen ezagutza-maila hartuko da kontuan merezimendu gisa, besteak beste. Administrazioak finkatuko du lanpostu-maila bakoitzerako zein pisu izango duen. Hizkuntza-zuzenbidea II</p>	<p><b>Artículo 11.</b> La capacitación lingüística del personal al servicio de las Administraciones de Cataluña.</p> <p>1. El personal al servicio de las Administraciones, las Corporaciones y las instituciones públicas de Cataluña debe tener un nivel de conocimiento adecuado y suficiente de las dos lenguas oficiales, tanto en la expresión oral como en la escrita, que lo haga apto para desarrollar las funciones propias de su puesto de trabajo.</p> <p>2. Para hacer efectivo lo dispuesto en el apartado 1, el Gobierno de la Generalidad ha de garantizar la enseñanza del catalán al personal al servicio de la Administración de la Generalidad, de las Corporaciones locales, de las Universidades públicas y de la Administración de Justicia de Cataluña y fomentar medidas de reciclaje de este personal.</p>

EAEko legearen arabera, langile publikoentzat euskararen jakintza merezimendua edo nahitaezko baldintza izan daiteke. Botere publikoak zehaztuko du kasu bakoitzean zer izango den. Kataluniaren kasuan, berriz, langile publiko guztiek hizkuntza-ofizial bietan ahoz zein idatziz gaitasun egokia izateko derrigortasuna dute.

Kataluniako Normalizazio Legeak arautzen duenean sakonduz, Kataluniako Estatutuak 102. eta 147. artikuluetan azpimarratzen du Justizia Administrazioako,

Notaritzako eta Erregistro Publikoetako langileek bi hizkuntza ofizialetan gaitasun nahiko izan beharko dutela.

<b>EAE</b> <b>10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoa</b>	<b>KATALUNIA</b> <b>Llei 1/1998, de 7 de gener, de política lingüística</b>
